


Zu hemen zaude. goiena

"JOSE LUIS ELKORO HAN EGON ZEN, GURE HERRIAREN ALDE, UNE ZAIL ETA LATZETAN"

Bergarako alkate eta ezker abertzaleko buru izandako Jose Luis Elkoro enpresariaren gaineko liburua argitaratu du Mikel Zubimendi kazetariak; apirilaren 13an aurkeztuko dute, Bergaran / 2



Mikel Zubimendi, *Han egon zen*. Jose Luis Elkoro, *bizitza bete bat* liburua egilea, atzo, Bergaran.

XABIER URZELAI



2018a ezkerro jardunik ez duen Epeleko zabortegia, astelehenean. JOKIN SALIDO

Epelek ez ditu jasoko aurreikusita zeuden 450.000 tona hondakin

Mankomunitateak ez du Epele zabalduko, ez dituelako hondakin gehiago jasotzeko baldintzak betetzen / 4

KORRIKA DEBAGOIENETIK / 8

Debagoiena da enpresa berritzaile gehien dituen eskualdea, %42rekin / 6

SINADURAK

 IÑAKI CASAS / 14	 ION LIZARAZU / 28
 JOANES PLAZAOLA / 25	 ITZIAR ALONSO AGIRRE / 31

ORDU ALDAKETA

Udako ordutegia estreinatuko dugu domekan: goizeko ordu bietan, hirurak izango dira.



ASTE SANTUA

Honako egun hauetan jasoko dituzue hurrengo aldizkariak: **GOIENA**: apirilaren 12an. **'Puntua'**: apirilaren 12an.

Ondo ibili!

VW ID BUZZ
Disfrutatu teknologiaz!

Gipuzkoa etorbidea, 36
ARRASATE • 943 71 18 70

Udalaitz



Bergarako alkate kargua hartzen, 1976ko otsailaren 1ean. BUA



Bergarako autokudeaketa proiektuaren batzar orokorra, 1977an. BUA



Ikurrina legeztatze osoko bilkura, 1977ko urtarrilaren 19an. BUA

Eneko Azkarate Laspiur BERGARA Bergarako alkate ohia (1976-1979 eta 1983-1987), enpresaburua (Elay, Balzers), ezker abertzaleko azken 40 urteotako itzal handiko pertsona... Horiek guztiak eta gehiago da Jose Luis Elkoro Unamuno (Elgeta, 1935). Haren gaineko biografia idatzi du Mikel Zubimendi kazetariak (Bergara, 1969). Liburua atera berri, Franco hil ostetik honako Euskal Herriaren gaineko hainbat pasarte garrantzitsu jaso ditu Elkoroaren ahotik.

Nola sortu zitzaizun Jose Luis Elkoroaren gaineko biografia idazteko aukera?

Olaso Dorrea Fundazioan baze- goen aspaldiko asmoa; aipatu zidaten eta erronka interesgarria iruditu zitzaidan, bai edo bai egin beharreko ahalegina. Jose Luis gure herriko historia eta balioak gordetzen dituen kutxa gotor bat da. Profesionalki, aurkikuntza etengabe bat izan da, eta umiltasun bainu bat, Euskal Herrian zenbat daukagun ikas- teko. Biluztu egin da Jose Luis, kontatu beharrekoak kontatu ditu, nahiz eta guztia, haren detaileetan, ezin den idatzi; gaur-gaurkoz, oraindik ez.

1970eko hamarkadatik aurrera, pertsona oso inportantea izan da; bereziki, Franco hil osteko ezker abertzalea ulertzeko.

Bai, dudarik gabe. Baina hark ez dizu halakorik esango; bertan tokatu zela esango du, txiripaz, agian, zoriaren kapritxoz edo. Ez zegoen haren aurreikuspenetan Bergarako alkate izatea, Euskal Herriko alkateen mugimendua edo Herri Batasunan sortze beretik bukaeraraino ego- tea. Baina han egon zen, gure herriaren alde, une zail eta la- tzetan. Herrigintzatik zetorren, Bergarako Alkartu Nai ekime- netik; ez zen alderdi antifrankis- tetako siglen unibertsokoa. Leial- tasun eta zuzentasun sinboloa izan da. Ezker abertzalearen etxea zainduz, etxeko jokatu.

"Jose Luis Elkoro ezin daiteke inolaz ere ulertu Bergara barik"

MIKEL ZUBIMENDI KAZETARIA, JOSE LUIS ELKOROREN BIOGRAFIAREN EGILEA

'Han egon zen. Jose Luis Elkoro, bizitza bete bat' liburua aurkeztuko dute apirilaren 13an Bergarako udaletxean. Bergarako alkate ohiaren bizitza errepasatu du Zubimendik

Mikel Zubimendi, *Han egon zen* liburuarekin, atzo, Bergaran. XABIER URZELAI

Telesforo Monzoni oso lotuta beti?

Oso inportantea da Telesforo Jose Luisen bilakaeran. Alkate zela ezagutu zuten elkar, Olaso Dorrea erortzeaz zegoela, udal bezala kezka eta laguntzeko prestutasuna erakustera Donibane Lohizunera joan zirenean. Kontuan hartu guardia zibilak zeudela Olason orduan, frankis- ten sekzioek bertan zutela egoi- tza, taberna ere jarri zutela, eta erabili bai, baina zaindu, batere ez. Han hasi zen adiskidetasuna betirakoa izan zen. Xibertan, han zeuden biak abertzaleen arteko batasun bat lortzeko, hil edo bizi EAJ eta ETA, gudari zaharrak eta berriak, lanean batera jartzeko. Arrasateko Txomin Iturberekin eta beste batzuekin ere aritu ziren ahalegi- nean, baina porrota izan zen. Zauri eta zartateko handia izan zen hura Telesfororentzat eta Jose Luisentzat, baina ideia ba- ten bueltan indartu zituzten gogoak: alderdiekin ezin bada, herriarekin egin beharko da. Herri Batasuna izan zen haren ondorioa. Bergaran Mahai Na-

zionala eratu zenean, Gipuzkoa- ko hiru ordezkarietatik –Jokin Gorostidirekin batera– bi ber- gararrak ziren, bata aristokrata eta bestea enpresaburua. Batzuei, agian, kontraesankorra irudi- tuko zaie ezkerreko alderdi ba- tean, baina, nire ustez, beneta- ko herritar batasun bat zer den erakusten du: Telesforo, Jose Luis, Jose Angel Iribar Athleti- ceko atezaina, Santi Brouard pediatria, sindikalistak, apaizak, ETAkoak izandakoak...

Egin egunkariaren sorreran eta gerora ere zuzendaritzan.

Sorrera prozesuan egon zen eta Orain SA enpresa editorearen burua izan zen ia sortze beretik. Prentsa askatasunaren aldeko haren konpromisoa eta lana oso handia izan da, haren ekarpena isila bezain ezinbestekoa; *Egin* egunkariaren eta irratiaeren ibil- bidean aztarna sakona utzi du. Eta hori ez zioten barkatu, horregatik sartu zuten preso, kau- sarik gabe epaituta eta deliturik gabe kondenatuta.

Bergarako alkate hainbat alditan, Gipuzkoako diputatu nagusi izate- ko hautagai –hauteskundeak ira- bazi zituen–, batzarkide, senatari, eusko legebiltzarkide...

Hori da. Herriak asko estimatu du; haren aurkariak, ezberdin- tasunak ezberdintasun, erres- petu handia izan diote, eta, hein batean, Madrigoek ere bai. Jose Luis, baina, ez da sekula politi- kari sentitu; zentzu profesiona- lean, behintzat, ez, oso deseroso sentitu da traje horretan. Hare- na ez da alfonbra gorrien pasa- rela izan, kartzelarako bidean eraman du haren konpromisoak. Hori bai, beste printzipio eta anbizio batzuk izan balitu, hura

"PERTSONALKI, ABERASGARRIA IZAN DA; PROFESIONALKI, AURKIKUNTZA ETENGABE BAT"



Foruak deuseztatu zituzteneko mendeurrena, 1976-07-21ean. BUA



Telesforo Monzonekin, Olaso Dorrean, 1977-08-05ean. BUA



Espetxetik atera berri, 2015eko irailean. GOIENA

erosteko saio eta eskaintzei uko egin izan ez balie, Gipuzkoako diputatu izan, izan zitekeen. Hori eskaini zioten Alkateen Mugimenduko buru zela, edo, adibidez, HB ez zen beste alderdi bateko zerrendaburu joateko kinieletan ere egon zen.

Josu Muguruza erail eta Iñaki Eснаola larri zauritu zuten Madrilgo Alcalá hoteleko lekuko ere izan zen; nola kontatzen du hura?

Jose Luisen besoetan hil zen Josu Muguruza. Alcalá hotelean tirokatu zituzten, eta oso fresko du han gertatua; lehen pertsonan kontakizun oso latza egin du, batzuek eta besteek nola jokatu zuten zehaztuz. Madrilen tirokatu zuten, baina Bergaran bertan kristoren *eskapadak* egindakoa ere bada. Txiripaz ez zuten hil. Guardia zibilak baino gehiago, gabardinekin aritzen ziren haiek, *Montejurrakoak*. **Pertsona elizkoa, karlisten familiakoa, Elgetako alkate izandakoaren semea, enpresaburua, arrakastaduna, gainera; ertz asko ditu, ezta?**

Ez nuke elizkoa dela esango, osoki Jesusen jarraitzaile eta haren erara kristaua den arren. Loiola eta jesulagunen arrastoa badauka, pobreekiko konpromisoa eta misioa, lagunak izan ditu Bergarako moja zaharrak eta domingotarrak, herrigintzan asko lagundu diote, baina ez da liturgikoa eta dogma-zalea. Amaren eta aitaren partez karlista familiakoa da, eta karlismoak Euskal Herrian dituen argi-itzalak eta eragina sumatu daitezke, aita Elgetako alkatea zen, lehenago osaba Errepublikara garaian, Santa Kruz apaizaren zuloa ere aipatzen da kontakizunean... Karlismoa faktore bat, bai. Eta bai, Jose Luis ez da enpresaburua bakarrik, enpresaburu oso ona da.

Txalaparta editorialak emango du argitara liburua; oso Bergarako geratu zaizula esan dizute. Hala uste duzu?

Badugu ospe hori bergararrok, ezta? Herria harro zoragarri goratzearena. Tira, Jose Luis ezin da inolaz ulertu Bergara gabe. Bergaran garatu zuen berezko potentziala, lur oso ongarritu bat zegoelako, kristoren historia eta memoria kondentsatua. Mari Karmen Aiausti emazteak eman zidan pista, beste hainbat kontutan bezala, eskertu nahi dizkiodanak; hari entzun nion hitza: "Orduan Bergara bonba bat zen!". Adibidez, nire tesia da ez dela kasualitate hutsa wolframa aurkitu zuten instituzio berean euskara batuaren giltzarria izan zen Euskaltzaindiaren VIII. Biltzarra egin izana, Herri Batasunaren Mahai Nazionala osatzea, edo UNED bertakotzea eta milaka euskal presoren ikasketak urteetan bertatik bideratzea. Oso *Bergarakua* da, akaso, baina ezin zen bestela izan.

Elkoro Bergarako alkate lehen aldiz izan zen sasoiaren 1976-1979- sekulako mugimendua zegoen Bergaran, eta talde hartako lider bilakatu zen.

Jose Luisen bizitzan badago letra larriz idatzi beharreko data indartsu bat: 1976ko uztailaren 21a. Euskal foruen abolizioaren mendeurrenarekin batera, dozenaka udalek Bergaran egin zuten ekitaldi jendetsu eta zoragarria. 1981eko otsailaren 23ko estatu-kolpean ezagun egin zen Antonio Tejero guardia zibilaren mehatxu guztiez gain, polizia herri guztia hartu zuten arren, milaka herritar bertaratu ziren. Intxortako gudariak emozioz negarrez, Agirre lehendakariaren alarguna, Monzonen emaztea, sekulako diskurtso potentea bota

"HAREN AURKARIEK, EZBERDINTASUNAK EZBERDINTASUN, ERRESPECTU HANDIA IZAN DIOTE"

Liburuan jasotako Jose Luis Elkoroaren esan batzuk

JESULAGUN

"Batxilergoa eta errebalida bukatuta, pentsatuta nuen jesulagun sartzea. Erabakita nuen, nire benetako bokazioa hori zen, munduan behartsuen alde misiolari izatea".

ALKARTU NAI

"Lege berri baten arabera, frankismoan lehen aldiz, 10.000 biztanle baino gehiagoko herrietan zinegotziek beraiek hauta zezaketen alkatea. Zirrikitu hark Bergaran benetako estatu-kolpe bat ekarri zuen, oposizioak Udalaren kontrola lortu baitzuen. Borroka sindikaletik eta Alkartu Naitik zetozen zinegotziek, beren gehiengo baliatuta, alkate frankista bota zuten".

MONZON, ELKORO ETA GUDARIAK

"Ni ez naiz sekula ETAKoa izan, baina ETAKoak mirestu ditut beren kuraia eta altruismoagatik. Hori argi geratzen da Alkateen Mugimenduko Bergaran deitutako ekitaldi jendetsuan bota nuen diskurtsoan".

MEHATXUAK

"Gure etxe aurrean ikusita daukat gabardinen azpian arma gordetzen zuen pertsona bat zuzenean nigana etortzen, bai".

JOSU MUGURUZA

"Askotan akordatzen naiz gertatutakoaz, Josuren irribarre txikia, zuri-zuri nola jarri zen, eta nola joan zen; nire besoetan hil zen".

zuen Elkoro. Egoera halakoa zen-eta, Euskal Herriak botere legitimorik ez zuen, ezta Madrilekin interlokuziorik, eta alderdi politiko legalik ere ez. Jose Luisek dio ez zutela herri hau ordezkatu bakarrik, gobernatu ere egin zutela. Ulertzen diot zentzua. Bestalde, esan behar da Alkateen Mugimendua hura oso Debagoienekoa zela, eskualdean hasi zela; zehazki, Oñatin, Duruko txabola batean. Debagoieneko Mankomunitatearen arrastoa ere hortxe bilatu behar da. Eta, zehatzago, Alkateen Mugimenduaren hasieran kooperatibismoarekin egon zen uztarketa, nahiz eta orduko Fagorren erabaki organikoa ez izan, ia herri guztietan sartu zirelako kooperatibistak zinegotzi.

Euskal erakunderik ez zen trantsizioko urte haietan, erabaki asko hartu zituen Elkoro eta orduan sortutako Alkateen Mugimenduko Bergarako Udalean. Pertsona eza-gun eta boteretsu asko igaro ziren Bergaratik... Hori guztia kontatzen duzu liburuan?

Den-dena ezin da, baina dezente bai. Nik ez dakit zein den egun Bergarako edo Arrasateko edo Oñatiko alkatearen agenda, baina esan diezazuket orduan Jose Luis goiz batean Espainiako hiru ministro ezberdinekin batzartuta dagoela, Adolfo Suarez presidentearekin ere bai, edo Espainiako armadako burutzat hartzen zen Manuel Gutierrez Melladorekin, edo Inteligentzia Zerbitzuetako -garaiko CESID- Emilio Alonso Manglanorekin... Edo Mutrikuko konde Jose Maria Areilzarekin... Eta Jose Migel Barañan *Argala*, eta Txomin Iturbe eta ETAKo beste buruekin... Eta Xabier Arzalluz, Juan Ajuriaguerra edo Manuel Irujorekin... Edo kooperatibismoaren bultzatzaile Jose Maria Arizmendiarrietarekin... Gai potoloen inguruan, bai, eta, jakina, Bergarako gauzak lortzeko aprobetxatzen zuen.

Zenbat atal ditu liburua?

25 ataletan banatu dut, badakidan arren atal bakoitzak liburu propioa duela, eta are entziklopedia ere bai. Denera, 350 orrialde inguru izango dira. Argazki ondo hornituta, gehienak kuxtetan gordeak zituenak. Eta bideoa ere badakar, QR batean, 1976 hartan Bergaran gertatu zena eta Jose Luisek eman zuen diskurtsoa jasotzen duena. Pedro Luis Ormazabal argazkilariari eskerrak eman nahi dizkiot holako harribitxia gure esku jarzteagatik.

Arrakasta izan du enpresaburu moduan ere. Elay, Balzers... Akaso, askorendako, alor hori da ezezagunena?

Elay da haren kreatura txikia. Haren balio, printzipio eta ekin-tzailtza ikus daiteke ispilu horretan. Aberastasuna Euskal Herrian mantenduz, langileekin ondradu eta baldintza oso onak ipiniz. Oso errentagarriak izan arren, armak ekoizteko proposamen guztiak baztertuz, enpresa eta lana euskalduntzen aitzindari izanik...

Kartzelatik igarotzea egokitu zitzaion, 70 urte pasata. Ze oroitzen dituzte espetxean igaro zituen urteez?

Ez da berdina kartzelara 25-30 urterekin sartzea edo 70 urtetik aurrera; kalkulu bitalak eta beste ezberdinak dira oso. Eta egia da lehen unean gaizki pasatu zuela. Gogorrek dira haren aitorpenak, baina, batez ere, zintzoak. Harentzat kartzelak ez du dena txarretik izan, badu bere gauza ona ere: garbitzen ikastea, sakon hausnartzea, gorrotorik gabe, inbidiarik gabe bizitzeko konklusioetara iristeko lagungarria egin zaio.

"ELAY DA HAREN KREATURA TXIKIA; HAREN BALIO ETA EKINTZAILTZA IKUS DAITEZKE BERTAN"



Epeleko zabortegia. JOKIN SALIDO

Epele ixtea erabaki du Mankomunitateak

Mankomunitateak zigilatze-lanak martxan jarri eta Eusko Jaurlaritzak 2021ean emandako bi milioi euroko dirulaguntza itzuliko du. Jaurlaritzak dio erabakiak ez duela Hondakinen Prebentzio eta Kudeaketa Planean eragin nabarmenik izango

Larraitz Zeberio Lekuona ELGETA

Debagoieneko Mankomunitateko Juntak aintzat hartu du Ingurumen Batzordeak Epele ixteko egindako proposamena, eta hilaren 21ean egindako batzordean zabortegia berriz ez zabalteko erabakia hartu du.

Erabaki hori orain bi urte hartutakoaren kontrako da; izan ere, Eusko Jaurlaritzak eta orduko Debagoieneko Mankomunitateak zabortegia berriro irekitzeko erabakia hartu zuten. Hain justu, urtebete lehenago, Jaurlaritzak 2 milioi euroko dirulaguntza onartu zuen Arrasateko zabortegia egokitzeko.

Txosten geoteknikoak oinarri

Mankomunitateak aurkeztutako bi azterketa geoteknikoek diote Epele ez dituela hondakin gehiago jasotzeko baldintzak betetzen. "Azpiko materialen karakterizazioak erakutsi du instalazioak ez dituela Ingurumen Baimen Bateratuan ezarritako gutxieneko segurtasun faktore geotek-

nikoak betetzen. Zabortegia berriro irekitzeko saiakera egin-gin balitz, mugimendu geotekniko esanguratsuak egonez gero, soluziobide konplexuak eta garestiak izango lirakeke. Bestetik, zabortegia martxan jarri zenetik -1993- araubideak asko gogortu dira eta zabortegia eraiki zenean ez zen hondakinak jasotzeko zeldaren azpi aldea hainbat geruza sintetikorakin inpermeabilizatu beharrik izan", azaldu dute Mankomunitateak. Lur azpiko urak drainatzeko sistemaren efizientzia gradualki murriztuz doala, lur azpiko galeriaren egoera kaxkarra dela, eta zelda zaharraren azpiko inpermeabilizaziorik eza ere deskribatzen dute dokumentuek.

**AURREIKUSITA
ZEGOEN EPELEK
450.000 TONA
HONDAKIN JASOTZEA
2030ERA ARTE**

Jaurlaritzaren balorazioa

Erabakiak ondorioak izango ditu Eusko Jaurlaritzaren Hondakinen Prebentzio eta Kudeaketa Planean; izan ere, aurreikusita zegoen Epelek 450.000 tona hondakin jasoko zituela 2030era arte. Tona horiek gainerako hondakin azpiegituretan egokitu beharko direla diote Gobernutik, baina ez dute uste itxierak eragingo duenik gainerako zabortegiek hartu beharreko erabakietan. Gaineratu dute urteotan sortu den hondakin kopurua aurreikusitakoa baino txikiagoa izan dela.

Debagoieneko EAJ, kritiko

EAJren ustez, berandu dator erabakia. "2022rako hartu beharreko erabakia 2024an hartu da. EH Bilduk sakoneko erabakiak hartzeko gaitasunik eza erakutsi du", esan du Ander Garayk, Debagoieneko EAJren izenean. Segurtasun irizpideen eta konponketa posibleen inguruko xehetasunak eskatu dituzte.

Osakidetza indartzeko konpromisoa hartu du EH Bilduk

Osakidetza urteotako "gainbehera" salatu, eta hura "zutik jartzeko" proposamena aurkeztu du EH Bilduk

L.Z.L. ARRASATE

Eusko Legebiltzarrerako hautagai Rebea Uberak Arrasateko, Oñatiko, Bergarako, Elgetako, Aretxabaletako eta Eskoriatzako alkateekin zein Antzuolako alkateordearekin egin du agerraldia Debagoieneko ospitale atarian. "Azken urteotako politikek norabide okerrean jarri dute Osakidetza; Debagoienak ere nabari ditu horren eraginak", esan du Oñatiko alkate Izaro Elorzak. EH Bilduko ordezkariak salatu dute Arrasateko ambulanzia medikalizatu "hainbatetan" egon dela mediku barik

eta medikuntza espezializatuan okertzen ari dela egoera.

EH Bilduren konpromisoak

"Konpromisoa aurkezten dugu osasunaren zaintza sustapen eta prebentzioan oinarritutako osasun sistema publikoa eraikitzeko", esan du Uberak. Osasun politikak gainerako politiketan txertatzeko eta indarrean den pertsonal politika aldatzeko konpromisoa ere hartu du, "profesionalak erakartzeko kontratazio eredu landuz". Gobernantza eredu aldaketa ezinbestekotzat jotzen du Uberak.



EH Bilduko ordezkarien agerraldia ospitale atarian. JOKIN BEREZIARTUA

Lehen sektoreak dituen erronkak izan ditu aztergai EAJk

Lurralde Oreka Berdea Departamentuko diputatu Xabier Arruti Ibarraundi museoa izan zen astelehenean

L.Z.L. ELGETA

Lurralde Oreka Berdea Departamentuko diputatu Xabier Arruti Eskoriatzan izan da. Debagoieneko EAJk gonbidatuta, lehen sektorearen gaineko saioa gidatu zuen astelehenean Ibarraundi museoa egindako hitzorduan. Hogei bat lagun aurrean aritu zen Arruti *Lurralde oreka berdea: nekazaritza eta herri txikiak* izenburuarekin aurkeztutako saioan.

Hark azaldu zuen Lurralde Oreka Berdea Departamentua berria dela, eta haren jardue-

ra-esparruen eta eginkizunen berri eman zuen: "Nekazaritza eta basogintza ikuspegi berri batetik lantzen dator. Nekazaritza gizartearen behar berriei erantzutea du helburu, lehen sektoretik zer egin daitekeen aztertzea".

Aurrera begirako erronkei buruz aritu zen Arruti. Esan zuen Gipuzkoako gizarte gero eta hirirrago dela eta lehen sektoreari buruzko ezagutza gutxitzen ari dela. Nekazaritza eta landa garapenean dauden erronka nagusien berri eman zuen.



RURAL KUTXA

1/6
Zenbaki horek produktuaren arrisku-maila adierazten duc; 1/6 adierazleak arrisku-maila txikiena adierazten du, eta 6/6k, arrisku handiena.

Kreditu Entitateetako Gordailuak Bermatzeko Funtsera atxikita dago Rural Kutxa. Funtseak 100.000 euroraino bermatzen ditu diruzko gordailuak entitate eta titular bakoitzeko.

• • Inbertituzko printzipal osoa edo haren zatirik erreskatatu edo aurrezki biltzeak kredituak edo peruluzioak ezar ditzake.



Hemen, zure aurrezkiak gorago iristen dira.

% 3,546ko UTBa

Epea: **12 hilabete**
Interesen likidazioa hiru hilean behin

Rural Kutxa Debagoiena Gordailua

Ospa ezazu geure urteurrena 12 hilabeteko iraupena duen epe finkoko Gordailuarekin, interes-tasa nominala % 3,50 izanik.

UTB: % 3,546

ITN % 3,50

RURAL KUTXA BERGARA
Paseo Irizar 5 · 943 76 93 93
oficina.0169@ruralkutxa.com

RURAL KUTXA OÑATI
Foruen Enparantza 9 · 943 71 88 67
oficina.0198@ruralkutxa.com

RURAL KUTXA ARRASATE
Plaza Biteri 2 · 943 79 53 43
oficina.0253@ruralkutxa.com

www.ruralkutxa.com



Proposamenak 2024/04/30ra arte balio du, eta Rural Kutxako aurrezki garbien maila Gordailu hau kontratatuta areagotzen duten pertsonentzat soilik. Gehieneko zenbatekoa: 100.000 euro.

Adibidea: 100.000 euroko gordailua, hasiera-data 2024/02/01 izanik: Interes gordineki dagozkien 875 euro likidatuko ditu 2024/05/01ean, beste 875 euro 2024/08/01ean, beste 875 euro 2024/11/01ean eta beste 875 euro gehi printzipalaren 100.000 euroak 2025/02/01ean; beraz, guztira, 3.500 euro gordineko interesak ordainduko dira.

Aldez aurretik ezerezteagatik komisioa % 1 da.

Ez dago urrutira joan beharrik oporretan

Udaberriko jaiegunak gainean daude, eta Mankomunitateko Turismo Sailetik zein bailarako udal zerbitzuetatik aisialdirako eta tokiko ondarea hobeto ezagutzeko hainbat proposamen egin dituzte, bertakoei eta kanpotik etorriko direnei begira

Hasier Larrea Herrero DEBAGOIENA

Datozen jaiegunok aproposak izan ohi dira Debagoiengan dauden altxorrek ezagutarazteko. Etxean geratzen diren bailarako herritarrei ere interesatuko zaie, ziurrenik. Hona hemen programatuta dauden taldekako hiztordu turistikoak.

Orientazio jolasak

Arantzazuko Parketxean familia giroan eta modu ludikoan egiteko orientazio jolasa prestatu dute, inguruko interesguneak deskubritzeko, bide batez. Ibilbide irisgarrian barrena altxor galduen bila joatean datza jokoa: "Ekintza horietan orientazio-oinarri batzuk ulertu eta barneratuko dituzte parte-hartzaileek, gero baliagarri izango zaizkienak pista eta arrasto batzuei jarraiki ibilbideak egiteko; eta, zenbait kasutan, altxorra eskuratzeko", azaldu dute Parketxetik. Ekimenok martxoaren 28tik 31ra bitartean izango dira, 10:30ean hasita. Izena emateko, deitu 943-78 28 94 edo 699 33 51 88 telefono-zenbakietara edota arantzazu@gipuzkoanatura.eus helbidera idatzi.

Artzain egun batez

Kanal berberetatik eman daiteke izena Gomiztegi artzain es-



Arrikutzeko kobako bisita bat. GOIENA

kolan antolatu duten ekintza berezirako. Martxoaren 30ean, zapatua, lau jarduera kateatuko dituzte, 10:30ean hasita. Hasteko, Parketxetik Gomiztegi baserri eta eskolarako bidexka hartuko dute oinez, eta Arantzazu auzoarekin zerikusia duten gaiak jorrotuta. Behin helmugara iritsita, bisita gidatu baten bidez ezagutuko dute bisitariek gunearen jatorria eta funtzionamendua. Ondoren, instalazioetara joango dira, gazta nola egiten den azaltzen duen diaporama eta bertako artzain baten

eta bere txakurraren erakustaldia ikustera. Amaitzeko, eskolan bertan egindako gazten dastaketa egingo dute.

Familian zein lagun artean egiteko plan horrek hiru ordu iraungo du eta azalpenak gazteleraz emango dituzte gidariek.

Ondare aberatsa

Oñatin jarraituta, turismoa egiteko aukera gehiago egongo dira, bai herrigunean, eta baita landa eremuan ere. Turismo Bulegoa zabalik egongo da goizez eta arratsaldez, eta, ordutegi horren

barruan, Erdi Aroko San Migel Errotaren nondik norakoan berri izan ahalko dute interesa erakusten dutenek.

Bestelako bisita gidatuak ere eskainiko dituzte, aurrez 943-78 34 53ra deitu eta erreserba eginga. Esaterako, Oñatiko Unibertsitate eta San Miguel parrokiara joango dira datozen bost egunetan, egunero, 13:00etan.

Arantzazu Santutegirako bisitak, bestalde, egunero egin ahal izango dira, goizez eta arratsaldez, hemendik eta apirilaren 7ra arte, aurrez 943-79 64 63ra deituta. Gainera, Oñati-Arantzazu autobus-linea erabilgarri egongo da aste honetako ostegun, ostiral, igande eta astelehenean, udako ordutegian (Ikus onati-turismo.eus-en).

Eta kobazuloetan murgildu nahi dutenek Arrikutzeko koban aseko dute kuriositatea. Egun gorrietan eta apirilako lehen asteburuan egingo dituzte bisita gidatuak. Adin guztietara egokitutako irteerak egiten dituzte, *Espeleotxiki* jarduera horretarako baitago diseinatuta. Gehiago jakiteko, deitu 943-08 20 00ra edo idatzi arrikutz@onati.eus-era.

Txokolatexia ere topera ibiliko da egunotan; ekintzen artean, hilaren 30eko *Kakaoaren bidea* bideo emanaldia nabarmentzen da, 12:00etan hasiko dena.

Gatz Museoa

Azukretik gatzera salto eginda, Leintz Gatzagako museoan hain garrantzitsua izan den osagaia nola lantzen zuten azalduko dute jaiegun guztietan. Euskarazko saioak 12:00etan izango dira eta gaztelerazkoak, 13:00etan. Egin erreserba 943-71 47 92 zenbakian edota reservas@gatzmuseoa.com-en.

Elgetan lubakiak

Elgetako Espaloia antzokian dagoen Memoria Historikoaren Euskal Interpretazio Zentroan, 36ko gerrak Euskal Herrian izandako xehetasunen inguruko erakusketa dago zabalik. Bada, gaian sakontzeko saioak ere eskainiko dituzte ostiral eta zapatu honetan, 10:30ean -izena emateko, deitu Debagoieneko Turismo Sailera-.

Bergarako bitxiak

Egunero zabalduko duten Laboratorium museotik kudeatuko dituzte bertako bisita gidatuak, baita hiri monumentalari eta lorategi historikoei buruzkoak. Larunbatetarako 11:00etan eta 12:00etan programatu dituzte eta gainontzeko egunetarako, 11:30ean. Erreserbak 943 76 90 03 zenbakian eta laboratorium@bergara.eus-en egin daitezke.

Arrasateren hiru aurpegi

Hiribildua, industria-ondarea eta mendi irteera gidatua antolatu dituzte udaberriko oporretarako Arrasaten. Hala, lehenengo gaia martxoaren 28an eta 29an izango dute hizpide, 11:00etan gazteleraz eta 12:15 euskaraz. Herriko industria jorrazteko saioa martxoaren 30ean izango da, 11:00etan gazteleraz eta 12:15ean euskaraz. Mendi-ibilaldia, berriz, Meatze-rreka, Udala eta Garagartza artean egingo dute, martxoaren 31n, 09:00etan. Izen-emateak BAZen egin daitezke.

DEBAGOIENEO TXOKOETAKO HISTORIA ETA NATURA EZAGUTZEKO PLAN UGARI DAUDE

Debagoiengan daude EAEko enpresa berritzaile gehienak

Eskualdeka, %42,1ekoa da enpresa berritzaileen ehunekoa Debagoiengan, Eustat-ek jakinarazi duenez

Hasier Larrea Herrero DEBAGOIENA

Euskal Estatistika Erakundeak (Eustat) emandako datuen arabera, Debagoiena da enpresa berritzaile gehien dituen eskualdea, Araba, Bizkai eta Gipuzkoako gainontzeko bailaretako da-

tuarekin alderatuz gero, 2022a aintzat hartuta; %42,1ekoa da ehunekoa. "Ikusitako bost urteetan lehen postuan mantendu da".

Datu orokorraren arabera, Araba, Bizkai eta Gipuzkoako hizpide izanda, %35,4koa da

enpresa berritzaileen ehunekoa, baina badira batez bestekotik harago dauden eskualdeak ere: Debagoienaz gain, esate baterako, Gipuzkoan, Debabarrena (%39,7), Goierri (%38,9) eta Urola Kosta (%36,9). Ehuneko txikiena duten eskualdeak, berriz, honako hauek dira: Arabako Errioxa, Araban (%29,5); Enkarterriak, Bizkaian (%32) eta Bidasoa Beherea, Gipuzkoan (%34,6). Hiriburuetan, Donostia da nagusi (%37); ondoren, Bilbo (%35,7); eta gero, Gasteiz (%32,1).



Ikerlan enpresaren egoitza, Arrasaten. IKERLAN



DEBAGOIENENKO OSASUN ZERBITZUAK



DENTISTAK

ADUR HORTZ KLINIKA

Arrasate / Arrasate pasealekua 15, behea / 943 79 95 60

AGIRRE HORTZ KLINIKA

Bergara / Ibargarai 32, behea / 943 76 00 23

ANE LASAGABASTER

Arrasate / Otalora lizentziaduna 18 solairu artea ezk.
943 79 13 68

ARANDO IRIARTE HORTZ KLINIKA

Arrasate / Iturriotz 7 - 1 / 943 79 69 45

ARRASATE HORTZ KLINIKA

Arrasate / Erdiko kale 50 / 943 79 72 23

ARREGI HORTZ KLINIKA

Arrasate / San Bixente Ferrer 1, behea / 943 79 71 90

CAVIGLIA SILVANA

Bergara / Simon Arrieta 3-2B / 943 76 38 54

DURANA HORTZ KLINIKA

Aretxabaleta / Durana kalea 22 / 943 79 93 55

GARAI HORTZ KLINIKA

Aretxabaleta / Iralabarri 15 / 943 53 42 63

GOROSABEL J. ALBERTO

Bergara / Fraiskozuri 5A, 1D / 943 76 56 88

MAZMELA BOLINAGA ENRIKE

Eskoriatza / Gorosarri J. plaza 3, 1. esk / 943 71 47 36

VITALDENT

Arrasate / Otalora lizentziaduna kalea 1 / 943 06 03 22

DIETETIKA

BEATRIZ ZULUETA DIETISTA - NUTRIZIONISTA ZUATZU KLINIKA

Arrasate / Nafarroa etorbidea 4 / 943 79 20 18

ENTZUMEN ZENTROAK

INSTITUTO OPTICO AUDITIVO

Arrasate / Erdiko kale 22 / 943 79 71 68
Bergara / Bidekurutzeta 10 - 943 76 97 03

KIROPRAKTIKA ZENTROA

BIZI KIROPRAKTIKA

Arrasate / Aprendices 2 / 943 79 92 83

MASAJISTAK

AZPEITIA IRUNE

Bergara / Ibargarai 44, behea / 943 76 73 43

NEUROLOGIA

AGUSTIN SAGASTA (AITA MENNI OSPITALEA)

Arrasate / Uribe auzoa 13-14 / 943 79 44 11

OPTIKAK

BEGIONDO OPTIKA

Aretxabaleta / Loramendi 10 / 943 79 98 21

ORTOPEDIA

MARIA VICTORIA ANITUA

Aretxabaleta / Belorrieta auzoa 1 / 943 08 11
43

OSASUN- DIAGNOSTIKOAK

UDALAITZ ZENTRO MEDIKOA

Arrasate / Euskal Herria plaza 3
943 79 44 22

PODOLOGOAK

ERDIKO KLINIKA PODOLOGIKOA

Arrasate / Erdiko kalea 54, behea esk.
943 79 97 46

IKERLEKU PODOLOGIA ZENTROA

Bergara / Ikerleku zeharbidea z/g
943 76 07 84

PSIKOLOGOAK

NUÑEZ TXOMIN

Arrasate / Olarte 10 / 943 79 88 16

VICENTE HUESO PSIKOLOGO KLINIKOA (AITA MENNI OSPITALEA)

Arrasate / Uribe auzoa 13-14/ 943 79 44 11

PSIKIATRIA

IÑAKI MADARIAGA (AITA MENNI OSPITALEA)

Arrasate / Uribe auzoa 13-14/ 943 79 44 11

Euskararen aldarria ilusioz eta harro eraman dute debagoiendarrek



ARAMAIO Lagun Artean dantza taldekoak.



ARAMAIO Papargorri abesbatzakoak.

Hasier Larrea Herrero DEBAGOIENA

Korrikaren ajea pasa da, baina ez oroitzapena. Lasterketak birritan zeharkatu du aurten Debagoiena, bigarren aldian Leintz Gatzagatik Oñatirako bidea hartuta. Joan den ostiral eta zapatu arteko gauean egin zioten harrera milaka debagoiendarrek, irria ahoan zutela eta hankak martxan jartzeko gogoz.

Aramaioarrek ekarri zuten lekukoa Legutiotik, eta gatzagarrek hartu zieten erreleboa, 02:30ak pasatxoan. Korrikak Eskoriatza, Aretxabaleta, Arrasate eta Oñati zeharkatu zituen ondoren, giro paregabea, eta Legazpi aldera abiatu zen Udantatik, 05:00ak jota. Gaupasa egiteko trabarik izan ez duen jende askok parte hartu du aurtengoan ere, eta euskararen aldeko ekitaldia zeharo arrakastatsua dela erakutsi du.

Eguaztenean Bergara eta Elgetatik pasa zela kontuan hartuta, bailaran 55 kilometro osatu ditu Korrikak, eta 140 pertsonak baino gehiagok eraman dute lekukoa, pankartaren atzeko jendearen laguntzarekin. Hemendik bi urtera errepikatuko dira irudi eder horiek; bitartean, eman bidea euskarari.



LEINTZ GATZAGA Toki Eder elkartekoak.



LEINTZ GATZAGA Alkatea lekukoarekin.



ESKORIATZA Herrigunea zeharkatzen.



ESKORIATZA Idurre Ezpeleta, Goienakidea, Goienaren kilometroan.



Korrikako irudi gehiago ikusteko, eskaneatu QR kode hau poltsikoko telefonoarekin





ARETXABALETA Durana kalean.



ARETXABALETA Lanbide Eskolakoak.



ARETXABALETA Mondragon Assemblykoak.



ARETXABALETA UDAkoak.



ARETXABALETA Arizmendi Ikastolakoak.



ARETXABALETA Udal langileak.



ARETXABALETA Gazte Mugimendukoak.



ARETXABALETA Kurtzebarri DBHkoak.



ARETXABALETA Loramendi euskara elkarteoak, 30. urtemuga ospatzen.





ARRASATE Santamas Komisiñokoak.



ARRASATE AED, Ekin eta Txatxillipurdikoak.



ARRASATE Irakasle bat eta ikasle bat (AEK).



ARRASATE Autobus gidariak.



ARRASATE Portaloitik igarotzean.



ARRASATE Zentralankidekoak.



ARRASATE Mondragon Futbol Taldeko ordezariak.



ARRASATE Alecopeko ordezaria.



ARRASATE Maritxu Kajoi Komisiñokoak.





ARRASATE AGAKOkoak, Elmako biribilgunean aurrera.



ARRASATE Institutua, Herri Eskola, EPA.



ARRASATE Musakolako jai batzordekoak.



ARRASATE Besaide Mendizale Elkartekoak.



ARRASATE SUDC elkartekoak.



ARRASATE Maider Morras alkatea eta Udal gobernuko kideak.



ARRASATE Dikar kooperatibakoa.



ARRASATE Bastia akademiakoak.



ARRASATE Athlon kooperatibakoa.





OÑATI Txantxiku Ikastolakoak.



OÑATI Oñatz dantza taldekoak.



OÑATI Elkar Hezi ikastetxeoak testiguarekin; pankartaren atzekoak, animoso.



OÑATI Fagor Industrialekoak.



OÑATI Antixena gaztetxekoa.




OÑATI Bizipozeoak.



OÑATI Ulmako ordezkaritza.



OÑATI Gipuzkoako Futbol Federaziokoak.



OÑATI EH Bildukoak.





OÑATI Txandakoak.



OÑATI Lanakoa, irribarretsu.



OÑATI Makalena elkartekoak.



OÑATI Urgain eskolakoak.



OÑATI Jendetza testiguaren atzetik.



OÑATI EAJkoak.



OÑATI Ulmakoak.



OÑATI Udal langilea.



OÑATI Zai Zoi Bele musika kolektiboa.





ZABALIK

IÑAKI CASAS

Erantzukizuna zurea da

Zera publikoa, eta honekin ez naiz administrazioez ari, zure erantzukizuna da. Eta nirea, noski. Jakina, indibidualitateen baturak masa egiten du eta mugimenduak sortzen ditu zentzu batean edo bestean. Baina *ni* askok aukera dute inguratzen gaituen errealitatea aldatzeko.

Gaur egun, nola da posible nazioarteko informazioan espezializatutako 5W hedabidean argitaratutako albiste hau irakurri behar izatea? *Bost hilabete hauetako bonbardaketetan, Israelek gutxienez 31.000 pertsona hil ditu; horien artean, 12.000 adingabe baino gehiago: urriaren 7a ezkerreko Gazan hildako haurren kopurua azken lau urteetan mundu osoko gerretan hildako haurren kopurua baino handiagoa da, Philippe Lazarini UNRWako komisionatu nagusiaren arabera.*

Edo tokiko prentsan beren espazioa hartzen hasi diren beste batzuk; adibidez, migratzaileen fluxua. Non geratzen da gure ekintza pertsonala, gure konpromisoa, gure sentsibilitatea, egoera horiek alda daitezkeen?

GU GARA GURE HERRIAN, MUNDUAN... GERTATZEN ARI DENAREN ERANTZULEAK

Badakizu non? *Bestean* atsedean hartzen du, Udalean, Aldundian, Eusko Jaurlaritzan, erakunde askotan. Horiek egin behar dituzte gauzak. Ba ez nator bat. Erakunde

horiek gu gara. Gu –eta ez haiek– gara gure herrian, gure lurraldean, gure erkidegoan... munduan gertatzen ari denaren erantzuleak.

Oso adibide garbia jarriko dut: agian, uste duzu gure tokiko merkataritzaren galera politika publikoen erruz gertatzen dela. Haiek lagun dezakete, baina zuk ez baduzu betiko dendan erosten, borroka azalera handien alde galduko da.

Horregatik, erantzukizuna zurea da. Ez saihestu. Erabil ezazu bidegabekeria sozialak geldiarazteko eta guztiok zainduko gaituen komunitate handi bat egiteko, batzuen eta besteen artean egon daitezkeen eta egon behar duten ezberdintasunetatik harago.

MARRAZKIZ

UNAI BUSTURIA



HANDIK ETA HEMENDIK

Euforia

ANDONI EGAÑA
'BERRIA'-N ARGITARATUA
HTTPS://LABUR.EUS/ORN5A

Euforia: "Ongizate eta alaitasun sentimendua, baikortasunerantz garamatzana".

Amaitu da Korrika. Ez dakit nire pertzepzio pertsonala den, baina sekula baino jendetsuagoa iruditu zait.

Eta parte hartu duen jendea inoiz baino biziago, alaia eta emanagoa sumatu dut lurralde guztietan.

Izango zuen zerikusia pandemia ostean dugun kolektibizatze premiarekin.

Teknologia berriek hedapenerako eskaintzen dituzten erraztasunekin ere izango zuen loturaren bat.

Baita azkenaldian euskarak jasan dituen lege bidegabekeriek sortu diguten min eta ezinegonarekin ere.

Edozein arlotan komunitateak sortzeko ditugun zailtasunak ikusirik, hamar egunean lortu den ardazte honek derrigor eragin behar digu euforia puntu bat...

Euforiaren definizioaren bigarren zatia propio ezkutatu dizuet hasieran.

Osorik, honelatsu litzateke. Euforia:

"Ongizate eta alaitasun sentimendua, baikortasunerantz garamatzana. Askotan laburra izaten da, ez delako errealitateari guztiz atxikia".

Badakit komenentziara laburtua dela, baina gera gaitzen euforiaren definizioaren lehen zatiarekin.

Korrika ondoko lehen astelehen goiza.

Batzuk irakastera.

Ikastera besteak.

Eta beste batzuk sortzera.

Horrela bakarrik lortuko dugu euforiari hain berezkoa duen laburtasun hori ostea.

goiena[™]
KOMUNIKAZIO TALDEA

www.goiena.eus

Argitaratzailea

Goiena Komunikazio Taldea
Kooperatiba Elkarte
Otalora Lizentziaduna 31
20500 ARRASATE

Lehendakaria

Monika Belastegi.
Zuzendari nagusia
Iban Arantxabal.
Eduki zuzendaria
Eneko Azkarate.

Erredakzio batzordea

Eneko Azkarate, Goiatz Arana,
Monika Belastegi, Mirari Altube.

Zuzendari komertziala

Mireia Larrañaga.
Administrazio zuzendaria
Agurtzane Gaintzarain.

Diseinu arduraduna

Iñaki Iturbe.

Hizkuntza arduraduna

Sergio Azkarate.

Harpidetza eta banaketa arduraduna

Igone Osinaga.

Sailletako arduradunak

Xabier Urzelai (Kirola),
Aitziber Aranburuzabala (Kultura).
Maketazioa
Imanol Soriano,
Aitor Lagoma,
Amaia Martínez de Arenaza.
Publizitatea
Mireia Larrañaga, Ziortza Martín,
Amaia Mundiñano.

Administrazioa

Ane Berebizbar, Iratxe Bengoa,
Leire Etxebarria.

HARPIDETZA

Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05
harpidetza@goiena.eus

PUBLIZITATEA

Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05
publi@goiena.eus
EGOITZA NAGUSIA
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
132 posta-kutxa
Tel.: 943 25 05 05
Telegram eta WhatsApp:
688 69 00 07
berriak@goiena.eus

Lege Gordailua: SS-965/2014

ISSN: 2174-369X
Tirada: 18.550 ale

Inprimategia:

Zeroa Multimedia

GOIENAK ez du bere gain hartzen aldizkari honetako orrialdeetan kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.



GOIENA KOMUNIKAZIO TALDEA

LAGUNTZAILEAK



Arrasateko Udala



Bergarako Udala



Oñatiko Udala



Aretxabaletako Udala



Eskoriatzako Udala



Antzuolako Udala



Aramaioko Udala



Elgetako Udala



Leintz Gatzagako Udala



Gipuzkoako Foru Aldundia

GUTUNAK

Eman diezaiogun euskarari kalea!**SUGOI ETXARRI ZABALETA**

EUSKAL HERRIAN EUSKARAZ- EKO KIDEA DEBAGOIENA

Aurrekoan, lan egiten duan institutuan ikasle batek bota zidan: "Hamar pertsona bagaude eta batek euskaraz ez badaki, errespetuzkoena da gazteleraz hitz egitea". Esaldi horren eta bota duen pertsonaren atzean hamaika bizipen daude, eta horietan barna nagusitu den logika bat antzeman daiteke; hau da, mundua gobernatzen dutenen logika indibidualista eta sasi-bakezalea.

Euskal Herrian (ere) agintzen duen logika horrek berak ezkututzen ditu pertsonen artean dauden botere-harremanak; klaseak, sexu-generoak, azal-koloreak, hizkuntzak... eragindakoak. Horrela, denok aske eta botere berdinar bagina bezala pentsatzera eramane gaituzte, gure bizipen eta ekintzen kausa zein ondorio sistemikoak ikusezin bihurtuz. *Nik euskaraz edo gazteleraz egin, zer axola du? Aske naiz nahi dudana egiteko! Gainera, ez dadila inor gaizki sentitu, ez dezagun inor gaizki sentiarazi...* Pentsamolde honek, bistan da, itxurazko *bakea* ezartzen du; noski, zapaltzailearen mesedetan eta zapalduaren kaltetan.

Azken urteetan, ikasleek euskara eskolarekin eta arauarekin lotzen duten irudipena dut, eta erdara,

kontrara, dibertsioarekin eta askatasunarekin. Urte luzeetako borrokaren ondorioz euskara, neurri (txiki) batean, instituzionalizatzea lortu dugun bitartean, diglosia egoera bortitzean jarraitzen dugu, baina gutxi hitz egiten da horri buruz eskoletan, etxeetan zein kalean. Errealitate gordin hori ezkutuan geratu da.

Horren aurrean, astindu berri bat behar du gure hizkuntzak eta komunitateak. Apirilaren 22tik 28ra izanen dugun Euskaldunon Harrotze Asteak horretarako aukera eskainiko digu, kaleak hartuz, elkarrekin ahalduntzeko eta bizi ditugun zapalkuntzen arduradunak seinalatzeko. Korrika bezalaxe, kolektiboki harrotzeko ariketa izanen da, parte hartu nahi duten euskaltzale guztiei irekia.

Gure institutuko ikasleek, beste guztiok bezala, egoeraren kontziente izateko eta askatzailea den komunitate baten parte aktibo izateko eskubidea dutelako. Eman diezaiogun euskarari kalea!

Batuak SL itxi egin da**JUAN IGNACIO IGARTUA**

BATUAK SL ENPRESAKO LANGILEEN IZENEAN OÑATI

43 urteren ondoren, Batuak SL lantegia itxi egin da.

Hamazazpi langile kale gorrian gelditu gara. Azken urte hauek ez dira errazak izan langileontzat. Gerentzia honen utzikeriaren erruz iritsi gara egoera honetara. Uztaillaren

19an Batuak SLko jabeek azalpenik eman gabe alde egin zuten. Martxoan gaude eta langileok orain arte lantegira joaten jarraitu dugu, urtarrilean eta otsailean lansaririk gabe. Langileok merezi al dugu tratu hau? Zortzi hilabete egon gara ziurgabetasunean. Non dago langileekiko errespetua? Langile gisa horrenbeste urte egon ondoren, oraindik ere langileak zaharkituak eta prestakuntza gabeak garela entzun behar izan dugu, baina langileon erdiek 20-30 urte baino gehiagoko antzintasuna dugu.

Bide juridikoak bere bidea darama; imajina dezakegu nola amaituko duen, baina langileok ondo dakigu errudunak zeintzuk diren, azken urte hauetan ikusitako jokaerek argi utzi baitute.

Natrako LABetik eskerrak Oñatiko herriari**ELI ARZA ETA UNAI ARAMENDI**

NATRAKO LAB-EKO SAIL SINDIKALAREN IZENEAN OÑATI

Hamaika kontzentraziño, kotxe-karabanaz, manifestaziño, sentadaz, kartekez, pankartaz... inguratuta bizi izan ditugu azken aste honek Natrako langileok.

Tentsiñuek, kezkek eta arduren gure bizitzak hartu daue. Eta merezi izan du, lortu dugulako! Beraz, Oñatiri gure

eskerrik beruenak emutia besterik ez jaku falta, herri modura hartutako jarreriatatik. Horren adibide da otsailaren 24an egin geben manifestaziñora atxikitu zian 29 eragile anitzak. Jarrai dezagun lan eta bizi baldintza duinen aldeko borrokan.

Masao Yoshidak ez zuena bete**JOSU GARITAONANDIA**

'OPARITU ZUHAITZ BAT' EGITASMOAREN ARDURADUNA BERGARA

Fukushimako istripu nuklearrean, gizon hark ez zuen agindu zuzen bat bete; horri esker, milaka batzuek bakarrik utzi behar izan zuten etxea; bestela, milioika izango ziren. Japoniako lehendakariak onartu egin zuen Masaoren meritua krisialdi nuklearrean hartu zituen erabaki zuzenekin lotuta. Hala ere, Masaok entzun beharra izan zuen bere arduradunen haserre; izan ere, Japonian onartezina da arduradun baten agindua ez betetzea. Txernobylen, adibidez, Dyatlov zen arduraduna gau hartan; simulakro bat egiteko idatzita zegoen araudia zenbait puntutan ez zuen bete. Eztandaren ondoren, garrantzia kentzen saiatu zen: inguruko biztanleen desplazamendua atzeratu egin zuen; azkenean, halako astakeriak ezin dira disimulatu, eta kartzelan bukatu zuen, zigor gogorrenarekin. Dyatlovek onartu zuen erruduna zela,

baina ez %100; hark zioen zentral nuklearra *ondo* eraikita egon izan balitz ez zela istripurik gertatuko.

Nik japoniarren lan egiteko era hobeto ikusten dut, baina, istripu nuklearrak ez gertatzeko, onena da teknika hori ez erabiltzea.

Argindarra erosten diezue energia nuklearra erabiltzen duten argindar-enpresei?

Lilabide 2024an sortu da, sasoiari**MARGARI GORROTXATEGI**

SASOIBIDEKO BATZORDEAREN IZENEAN ARRASATE

Martxoaren 8an Lilabide sortu da. Deialdiarekin bat 80 emakume baino gehiago elkartu gara, 5 kilometroko ibilbidea oinez egiteko. Ekimen berri hori antolatzeke lagun izan zaituztegun guztiei gure eskerrik beroenak eman nahi dizkizuegu.

Eskerrak ekarpen txikienari ere, elkarlanaren oinarria baita. Gurekin bat egin duzuen guztioi: ideia pizten, izena asmatzen, irudia sortzen, kartelgintzan eta abar; argazkilariak, Batukada (Sambamaña), Emakume Txokoa, Bizi-Poz, Udaltzaingoa, Udal Brigada, Eroski, Mondraberri, Goiena... baita Eva Abuin zinegotziari eta alkateari ere. Laguntza eske joan garenean, zuen guztion harrera abegikorra izan da eta.

Eta, nola ez, mila esker Lilabide egitera etorri zareten emakume guztioi.

GUTUNAK: Karaktereak, gehienez: 2.000 (hutsuneak barne). GOIENAK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunak ezin izango dira kapituluka bidali. Gutun edo iritzi-zutabe bati ezin izango dio pertsona berak kapituluka erantzun; gutun bakararekin erantzun beharko dio. Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena, herria, harremanetarako telefonoa eta nortasun agiriaren zenbakia. Gutuna helarazteko bideak: Otalora Lizentziaduna 31, 20500 Arrasate / gutunak@goiena.eus



Realaren eta Almeriaren arteko partidarako sarrerak futbol zelaiko tokirik onenean!

GOIENAKIDEENTZAKO ESKAINTZA

Real-Almería norgehiagoka beste modu batera ikusteko aukera bikaina duzue eskura zuek eta zuek aukeratutako beste lagun batek: Reale Arena futbol zelaiko premium gunetik.

Reale Arena futbol zelaiko premium gunetik.

Partida apirilaren 14an, 21:00etan izango da.

Parte hartzeko azken eguna: apirilaren 7a.

Ezin errazagoa da zozketan parte hartzea!



1.
Aplikazioa deskargatu.

2.
Zozketak atalean sartu eta parte hartu.

Gertu.
Zorte on!



Egin Goienakide eta Reala ikusteko aukera izango duzue!



Okm:
batzen gaituen distantzia

Mende laurdena bete du Uarkapek

2024ko abenduaren 21ean, 25 urte beteko ditu Uarkape pilotalekuak, eta dotore jantzi dute, gainera, urteurrenerako; gaur egun, pilotaleku hutsa baino gehiago da

Eneko Azurmendi Barrena ARRASATE

1999ko abenduaren 21ean, santas bezperan, inauguratu zuten Uarkape pilotalekua. Edozelan ere, une hartara iristeko "lan handia eta bide luzea" egin behar izan zuten, garai hartan alkate izan zen Xabier Zubizarreta *Txiron*-en esanetan (Herri Batasuna). "Egungo pilotalekua atzean geratzen den maldak arazo handiak eman zituen, ikuspuntu geologikotik. Inguru hartan ez zegoen ezer; bi etxe txiki eta lurra besterik ez. Goian beste etxebizitza batzuk zeuden, 20 bat urte lehenago eraikitakoak", azaldu du orduko alkateak. "Malda hartan oinarria aurkitzen hasi zirenean, zailtasunak izan zituzten. Hori dela eta, erabaki zuten hormigoizko hiru plataforma jartzea, eta haien gainean eraiki zituzten goiko etxebizitzak", gaineratu du.

Edozelan ere, beherago zeuden lurrak erabiltzen hasi zirenean, hain zuzen, egungo Taupa taberna gainean dauden etxebizitzak eta Uarkape pilotalekua egiteko, maldako lur-masa mugitu egin zen eta arrakala bat sortu zen goiko etxeen ondoan. "Beraz, paralizatu egin genuen obra eta malda hartan ikerketa bat egitea enkargatu genuen. Emaitzak iritsi zirenean, ikusi genuen egonkortasun maila oso baxua zuela lur-masa hark".

Ondorioz, gogoan du "gora-behera dezente" izan zituztela Altamirako etxeetako bizilagunekin, "haiek ere arazoak jasan zituztelako". Hori kontuan izanda, eustorma handi bat egin behar izan zuten, egun Arizmendi Ikastolaren Ferixalekua gunea dagoen lekutik Taupa taberna atzeraino. "Horma hura josi egin behar izan genuen malda hartako haitzera. Haitza, hala ere, urrun geratzen zen.



Uarkapeko harmailak lepo bete ziren 1999ko abenduaren 21ean.



Txiron, orduko alkatea, ohorezko sakean.

Kablerik luzeenak 29 metrokoak ziren. Horma hark eusten du, gaur egun ere, azpian dagoen lur-masa handia", dio orduko alkateak.

Iturripetik Uarkapera

Uarkape egin aurretik, herrian bazeuden hainbat frontoi; Iturripekua eta Musakolako kiroldegikoa, esaterako. "Haiek, ordea, arruntagoak ziren, azpiegitura handirik gabeak". Bestalde, Zaldibarko pilotalekua erreferentzia zen herrian. "Frontoi historikoa da, 1900ekoa. Beti



Aureskua egin zieten Arrasate Pilota taldeko kideei eta omenduei.

eduki izan du ospe berezi bat eta *Mondragones*-ek han jokatu izanak are gehiago hauspotu zuten Zaldibarren izena. Horrexegatik, hain zuzen, aspaldidanik erabakita zegoen frontoi hark ondare izaera mantendu behar zuela eta pilotaleku berri

"MALDAK HAINBAT ARAZO ERAGIN ZITUEN; PROIEKTUA ATZERATU EGIN ZEN"

XABIER ZUBIZARRETA 'TXIRON'



Inaugurazio egunean, pilotariak eta hainbat ordezkari. ARGAZKIAK: ARRASATEKO UDALA



Herriko pilotariei omenaldia egin zieten inaugurazioan.

Gainera, goiko sarea erorita zegoen eta ezin genion altura eman pilotari. Partiduak han jokatzera lotsagarria zen. Ez genuen ulertzen Arrasate moduko herri batek behar zuen moduko pilotaleku bat ez edukitzea. Balaran eta inguruan zeuden frontoi gehienak Iturripekua baino hobeak ziren". Mauricio Zubillaga *Mauri*-k, urte luzez entrenatzaile lanetan aritu izan denak, gaineratu du Iturripekua "partidu asko" bertan behera utzi behar izan zituztela. "Haizea bazegoen, kantxa guztia busti egiten zen".

Gauzak horrela, Arrasaten baldintza duinak zituen pilotaleku bat behar zela garbi zeukan orduko Udal Gobernuak. "Estalio eta ikusleendako leku egokia zuena, harmaila batzuekin".

Zentsura-mozio bat tartean

Maldarekin zegoen arazoa konpontzeko prozesua, ordea, hainbat urtez luzatu zen. "Agintaldi bat baino gehiago bai", dio *Txiron*-ek. Bitartean, Udal Gobernuan aldaketak ere gertatu ziren. Izan ere, 1997an, *Txiron* alkate zela, zentsura-mozio bat egon zen eta EAJk hartu zuen agintea -Jose Maria Loiti-. Bi urte

bat egin behar zela", dio *Txiron*-ek.

Modu horretan, 90eko hamarkadan, Arrasate Pilota Taldeko kideak Iturripekua pilotalekuan aritzen ziren. Uarkape inauguratu aurreko bi urteetan, halaber, taldeko pilotari nagusiak Aramaiora joaten ziren entrenatzera, Iker Zugasti pilotari ohiak azaldu duenez. "Iturripekua frontoiak ez zituen baldintza egokiak betetzen. Haurrentzako agian bai, baina guretako ez. Eguraldi txarrarekin, kanpora irtetea, pilota busti egiten zen.



Arrasate Pilota Taldeko ordezkariak, Uarkapen, astelehenean. E.A.B.

geroago, 1999ko ekaineko hauteskundeetan, berriro hartu zuen agintea Txiron-ek, Euskal Herritarrok alderdiarekin.

Urte hartako udan alkate kargua hartzearekin batera, Uarkapeko lanak bukatzea izan zen Gobernuaren lehentasunetako bat. "Santamasetarako inauguratu gura genuen, baina detaile asko falta ziren bukatzeko. Beraz, gogoan dut azken orduan presaka ibili ginela, eta justu-justu amaitu genituela lanak. Pentsa, zinegotzi batek esan zidan sarrerako kristalezko ateetako bat bezperan jarri zutela".

Zera azpimarratu du orduko alkateak: "Guk hasi genuen Uarkapeko proiektua eta EAJren eskuetan geratu zen bi urtez. Bukaeran, berriz guk hartu genuen. Haiek hainbat aldaketa egin zituzten proiektuan, eta, beraz, erdibideko zerbait izan zen emaitza, ez guk ez haiek ez genuelako aukerarik izan jarraipenik emateko. Pilotalekuan 1.000 pertsona baino gehiago sartzen dira eta sarrera, adibidez, oso estua da, desproporzionatua. Arazo hori, hein handi batean, konpondu zen

goiko etxeetatik beste sarbide bat egin zenean –erreboteko pareta ondoan–".

Esan moduan, 1999an inauguratu zuten Uarkape, eta Arrasate Pilota Taldeak "asko" eskertu zuen hori. "Behar genuen halako pilotaleku bat; aldaketa izugarria izan zen. Pozez hartu genuen eta gaur egun ere oso pozik gaude dugun frontoiarekin, kategoriakoa da", dio Zugastik.

Askotariko erabilera du

25 urte beteko dituen honetan, pilotalekua baino gehiago da Uarkape. Batetik, herri mailako zein elite mailako pilota hartzen du. Hala, azken urteetan, urteroko hitzordua da santamasetako gizonzkoen Binakako Txapelketako partidua, eta nabarmenezkoa da, era berean, Emakume Master Cup txapelketako finala ere Uarkapen jokatu dutela aurten. Halaber,

"PILOTALEKUAK PILOTAN JOKATZEKO IZAN BEHAR DU, EZ BESTE EZERTARAKO"

MAURICIO ZUBILLAGA 'MAURI'

Arrasate Pilota Taldeko kideek ere erabiltzen dute entrenamenduetarako zein partiduetarako.

Horrez gain, askotariko ekintzak egiteko erabiltzen den espazioa da: Arrasate Dragoi Gimnasia taldearen entrenamendu eta erakustaldiak; boxeo jaialdia; Gabonetako Txikilandia parkea; askotariko kontzertuak; herri mailako bazkari zein afariak; batzarrak; ikastaroak; eta abar.

Erabilera mugarik ez dute nahi

Arrasateko Pilota Taldean 40 pilotari inguru dituzte egun, eta haien eskakizun nagusietako bat da pilotalekua erabiltzeko dituzten mugak kentzea. Izan ere, Arrasate Dragoi Gimnasia Taldekoekin partekatzen dute eta asteburu askotan bestelako ekintzak ere hartzen ditu Uarkapek. "Gimnastak ere asko dira eta ez dute beste lekurik entrenatzeko; ulertzen dugu hori. Baina guk ordutegi jakin batzuk ditugu eta horietatik kanpo ezin ditugu frontoia erabili. Astelehen, eguazten eta egubakoitzetan, esaterako, 19:00etatik aurrera baino ezin dugu erabili, gimnasten ostean. Ordu horietan ezin ditugu ekarri haurrak entrenatzera, oso berandu da", azaldu du Iker Zubiak, taldeko presidentea. "Asteburuetan, beste ekintzaren bat badago, ez dugu aukerarik, eta, libre egonda ere, Udalak ez digu uzten erabiltzen. Ez dugu ulertzen. Gure ustez, frontoiak irekita egon beharko luke, eta haurrek nahi dutenean jokatzeko aukera eduki", dio Oskar Oruek, taldeko lehendakariordeak. *Mauri*-k zera azpimarratu du: "Pilotalekuak pilotan jokatzeko izan behar du, ez beste ezertarako. Frontoian lehentasuna pilotarietara izan behar dute beti".

Bisita historiko-kulturalak eta mendi irteerak, bihar hasita

Udalak antolatuta egingo dituzte, ekainera arte, eta, doakoak diren arren, izena eman beharko da aurrez

E.A.B. ARRASATE

Udaberriko turismo eskaintza eman du ezagutzera Arrasateko Udalak, eta, datorren astean hasita, askotariko ekintzak egin ahal izango dira herrian, ekainera bitartean. Batetik, bisita historiko-kulturalak egongo dira. Esaterako, *Arrasate hiribildu bizia* bisita gidatuak egingo dituzte martxoaren 28an eta 29an eta apirilaren 20an.

Bestalde, Arrasateko industria ondareari buruzko bisita gidatua, industrializazioak XX. mendean utzitako hirigintza iraultza berriaren eragina azalduko dute etzi; hainbat eraikin eta istorio ezagutuko dituzte.

Bisitez gain, askotariko mendi ibilaldiak ere prestatu ditu Udalak herritarrentzako: Meatzerra, Udala eta Garagartza auzoak menditik; Bakue-Kortaburu-Etxezarreta ibilbidea; Uda-

la-Gongetako Meatza-Besaide ibilbidea; Santagedaatxera irteera eta Bedoña-Larriño ibilbidea. Azken horri dagokionez, zera azaldu du Udala Gobernuak: "Errege Bidetik doa, Asuelatik, Bedoña auzora. Handik Zubillaga aldera jaitsiko da, Uretsako iturrietara, eta gero, Aretxabaleto Larrino auzoa igaroko du, eta Bedoñara itzuli. Handik herrigunera jaitsiko da".

Guztiak doakoak izango dira, baina izena eman beharko da, *izenemateak.arrasate.eus* atarian, BAZen edo 943-25 20 00 zenbakian.

Beste hainbat ekintza

Bestelako hainbat ekintza ere egongo dira udaberrian: Arrasate-Udalatz; Musakolako BTT martxa; errugbi txapelketa; Dantzari Eguna; Debagoieneko Trikitixa Eguna; klarinete topaketa eta musikaldia.

Gazte txokoek egitarau zabala dute prest oporretarako

Udaleko gazte txokoek *Udaberriko oporrak* egitaraua antolatu dute apirilko lehen asterako. 12-17 urte arteko nerabeei zuzendutako egitaraua da, eta hainbat aukera izango dituzte. Eskoriatzako tirolinaren parke- ra, Salting Iruña parkera eta Arrikruzera joango dira, eta apirilaren 7an Txilling Eguna egingo dute gaztelekuan.

Amaidoluaren eskutik, suizidioaren prebentzioaz

Suizidioaren prebentzioa, bizitza sustatzeko gako hitzaldia egingo dute apirilaren 18an Eva Bilbaok eta Agustin Erkiziak. Biziraun elkarteko sortzaileak dira biak eta Bilbao elkartearen egungo presidentea ere bada. Kultura-teko Jokin Zaitegi gelan izango da saioa, 18:00etan, Amaidolua Elkartean antolatuta. San Felipen eta Udalaren babesarekin.

VITALDENT
ZURE AHOA DA GARRANTZITSUENA

200€

-ko deskontua* zure hortzetako tratamenduan

ARRASATE
Otalora Lizentziaduna kalea 1
943 06 03 22

*200 €-ko deskontua 1.000 €-ko gaurko tratamenduetan, 2024/03/01etik 2024/03/31erako arte (lehen gaurko) konprometutako tratamenduetarako bakarrik erabilgarria da. Hori ez da erabilgarria beste edozein beste tratamendurik, erabilgarriak diren beste edozein beste tratamendurik, erabilgarriak diren beste edozein beste tratamendurik, erabilgarriak diren beste edozein beste tratamendurik, erabilgarriak diren beste edozein beste tratamendurik.

"Lehen ez zitzaidan gustatzen jendaurrean barre egitea, orain ez dago GELDITUKO nauenik".



Elorrieta eta Astiz, *Enplego zoriontsuago bat* emanaldia egiten. 'ENPLEGO ZORIONTSUAGO BAT'

Liburuaren Egunarekin lotuta dator apirila

Apirilaren 23a Liburuaren Nazioarteko Eguna da, eta, hori ospatzeko asmoz, Arrasateko Udal Bibliotekak zenbait ekintza antolatu ditu. Egitarauan adin guztietako pertsoneri zuzendutako ekintzak daude eta musikak ere izango du tokia

Julen Murua Mesonero ARRASATE Liburuaren Nazioarteko Eguna –apirilaren 23a– iristeko hilabete baino gutxiago falta da, eta Arrasateko Udal Bibliotekak, urteroko legez, egun horren bueltako egitaraua iragarri du. Alabaina, egitaraua ez da soilik apirilaren 23an oinarrituta egongo, eta hilabete zehar beste ekintza pare bat ere iragarri dituzte antolatzaileek: "Liburuaren Eguneko egitaraua anitza izatea nahi izan dugu, eta bertako artistei lekua ematea. Hiru jarduera ditugu: bat helduei zuzendua, beste bat familieei eta hirugarrena haurrei".

Musika erdigunean

Hiru ekintzak osatuko dute egitaraua, eta horien artean "bi ikuskizun berezi" izango dituztela eta bietan musika izango dela protagonista iragarri dute antolatzaileek, "liburua eta literatura beste diziplina batzuekin aurkeztea aberasgarria" dela iritzita. Musika erdigunean

izango duten bi ekintza horietatik lehenengoa apirilaren 10ean egingo da, Kulturaten, arratsaldeko zazpitan. Eñaut Elorrieta eta Iñigo Astiz izango dira bertan eta *Enplego zoriontsuago bat* irakurraldi musikatu eskainiko diete bertaratuei. Adinez nagusiak direnentzat zuzendutako emanaldia da eta sarrera doakoa izango da. Gabriel Arestiren poesiak izango dituzte helduleku Elorrietak eta Astizek; izan ere, haien lanaren sinopsian diote "hamaika bider" irakurri direla haren poemak: "Eta hain dira ezagunak eta ikusiak haren testu eta abesti batzuk, ezen, tarteka, jadanik ez baitugun zer esaten duten ikusten ere".

HIRU EKINTZAK OSATUKO DUTE LIBURUAREN EGUNOKO EGITARAUA; MUSIKAK ERE IZANGO DU TOKIA

Liburuaren Egunean izango du tokia egitarauko bigarren ekintzak. Bertan, Vanessa Gonzalezek *Kukuak kontu* ipuin kontaketa egingo du, 18:00etan hasita, Santa Marinako auzo bibliotekan, eta 5 urtetik gorako neska-mutilentzat egongo da zuzendutako emanaldia. Bertartzeko aurrez izena eman behar delako iragarri dute Udal Bibliotekatik.

Musikarekin lotura izango duen bigarren ekintza apirilaren 26an izango da, arratsaldeko seietan hasita, Kulturaten –egitarauko azken emanaldia izango da–. Bertan, *Euskelelea* ikuskizun musikala eskainiko dute 4 urtetik gorako neska-mutilentzat Euskal Barrokensemble taldeak eta Goikobalu Txiki abesbatzak. Antolatzaileek iragarri dute emanaldira joan ahal izateko, kasu horretan ere, aurrez eman behar delako izena, "bibliotekaren edo Udalaren webgunearen bitartez edo bibliotekara joanda".

Irati Erostarberekin batera abestuko du Txorbela Otxoteak

Arrasate Musikalen hasi zen hura, eta Belgikan ari da gaur egun, Musika Interpretazio masterra amaitzen

J.M.M. ARRASATE

Solasaldi musikala egingo du Txorbela Otxoteak Irati Erostarbe musikariarekin batera apirilaren 11n San Frantzisko elizan. 19:30ean hasiko da emanaldia, eta "abesti klasikoak zein garrantzi handiko obrak" eskainiko dituztela adierazi du Xabier Barriolak, Txorbela Otxoteko zuzendariak.

Erostarbe omendu

"Arrasate kanto musika ikasten ari den jendea" omentzen dute tarteka Txorbela Otxoteko kideek haiekin kontzertuak eskainiz, eta oraingoan ere hori egingo dutela iragarri du Barriolak: "Irati Erostarbe Arrasate Musikalen hasi zen biolontxelo ikasten eta gaur egun Musika Interpretazio masterra amaitzen ari da Ganteko (Belgika) KASK Conservatorium-en, Judith Ermert-en zuzendaritza-

pean, hainbat orkestra eta gainera musika taldeekin aritzeaz gain". Arrasaten musikaren gaineko zaletasun handia dagoela eta, "zorionez, musika ikasten duen jende asko" dagoe la aitortu du Barriolak. Herriko musikariak omentzeko arrazoi bat dela dio Txorbela Otxoteko zuzendariak, eta hamar kantu inguruko erreperorioa prestatu dute horretarako.

Sarrera, doakoa

Kontzertua "Txorbela Otxoteko Udalarekin duen konpromisoaren barruan" sartzen dela eta, beraz, "sarrera doakoa" izango dela iragarri du Barriolak. Hori dela eta, "harrera ona izatea" eta "San Frantzisko eliza jendez betetzea" espero du zuzendariak; izan ere, aurretik eskaini dituzten kontzertuetako harrera "oso ona" izan dela dio, eta oraingoan bide bera jarraitzea dute helburu.



Txorbela Otxoteko kideak. TXORBELA OTXOTEAK

'Totxparta' egunaren bueltako egitaraua iragarri du Ttakun-ek

Ttakun Arrasateko txalaparta taldeak *Txotxparta* afari ekimena antolatu du Aramaioko Iturrieta sagardotegian apirilaren 19rako. Autobusa 20:30ean irtingo da, Garibai geltokitik, eta 00:15ean itzuliko da Arrasatera. Irati tabernan eman behar delako izena, hilaren 16a aurretik. Txartelak salgai daude 45 eurotan; ikasleek eta langabeek, 40.

Punk eta jazz doinuak apirileko Kooltur egitarauari ekiteko

Apirilaren 4an izango da Kooltur Ekintzak apirilerako antolatutako kontzertuetako lehenena, eta Frantziako *Lion's Law* punk taldea izango da oholtzara igoko den taldea. Haien ostean, apirilaren 11n, Bizkaiko The Cherry Boppers taldearen txanda izango da; eta Sara Zozayak eta Tarah Who? taldeek osatuko dute apirileko egitaraua.

Sastiñan aurkeztu du Idoiak disko berria

Idoia Asurmendik 'De amar y desandar' kaleratu eta biharamunean herritarren aurrean aurkeztu zuen azken lana; Sastiñako ermita jendez bete zen, eta, hainbat pieza jotzeaz gain, lan berria ontzeko prozesua zein izan den azaldu zuen

Idoia Aranbarri Arzuaga ARAMAIO Martxoaren 23an Aramaio Sastiñako ermitan aurkeztu zuen Idoia Asurmendik bezperan kaleratutako *De amar y desandar* disko berria. Astebete lehenago otu zitzaion aurkezpena egitea herrian, uste zuelako aukera ona izan zitekeela herrikoei abesteko. "Azkenean, disko hau egin dut nire inguruko jendearendako, eta nire inguruko jende asko dago hemen herrian, Aramaion, eta polita izan da", zioen aurkezpenaren amaieran.

Jendez bete zen ermita, espero ez bazuen ere, eta "oso bero" eta "oso babestuta" sentitu zen: "Lehen diskoak gaur sinatu ditut, ez naiz etorri prestatuta etxetik. Pertsona batek utzi dit boligrafoa eta hor ibili naiz lehen diskoak sinatzen".

'De amar y desandar' berbagai Diskoaren nondik norakoen berri eman zuen. Zortzi abestik osatzen dute aramaioarraren azken lana: "Zortzi kantu, zortzi oroitzapen". Diskoa "oso pertsonala eta intimoa" dela azaldu zuen, baina sentitu zuen bertaratutakoek bere egin zituztela abestiak: "Gaur igarri dut nahiz eta gauza pertsonalak izan jendeak berera eramaten dituela kantuak eta oso kolektiboa dela diskoa. Nire oroitzapenak badira jendearenak ere, baina euren modura". Beti errazak izan ez diren momentuetan ondoan izan dituenak izan zituen gogoan zapatuan, baina baita diskoan ere.

Azalpenak ematerakoan, gainera, alboan izan zuen hainbat momentutan Maria Osés arrasatearra, diskoan agertzen den *Autofikzioa* abestiaren letra idazteaz gain Miau taldeko kide moduan disko fisikoaren diseinuan ere parte hartu duena. Azken laneko lau abesti jo zituen zuzenean, eta horietatik lehena izan zen *Autofikzioa*. *Sarearena*, *Calma* eta *Un último baile bajo*



Idoia Asurmendi, zapatuan, Sastiñako ermitan egindako aurkezpenean. TXOMIN MADINA

ARAMAIOARRAK EIBARREN HASIKO DU DISKOAREN AURKEZPEN BIRA, APIRILAREN 13AN

el aguacero izan ziren besteak. Aurkezpena borobiltzeko, aurreko disko *Hitzetan* ere abestu zuen bertaratu zirenekin.

Lanak hartuko duen norabidea Azken proiektuak bete du "bete behar zuen funtzioa" harengan: "Nik lortu dut imajinatzen nuen guztia. Orain, diskoak bide bat edukitzea gura dut, eta nire kantuak jendeari partekatu eta entzuleek bere egitea kantu horiek. Espero dut gozatzea musikaz eta, batez ere, emozioz kontatzen ditudan emozio eta bizipenekin". Hala ere, ez du irudikatzen diskoaren bidea, baina nahiago du diskoak berak aukeratzea hartu beharreko norabidea eta hark horri jarraitzea.

Diskoa kaleratzea, deskantsua *De amar y desandar* diskoak argia ikusi aurreko egunetan

"urduri" baina "gogotsu" egon zela adierazi zion GOIENARI, aurkezpena bukatuta: "Denbora asko egon naiz disko honetan lanean, eta banuen gogo jendearekin partekatzeko egindako lana. Zelanbait, feedbacka jasotzeko gogoz nengoen". Hala, diskoa kaleratuta "deskantsua" hartu duela adierazi zuen: "Deskantsatzeko beharra ere badauk; hor egon naiz tentsio eta emozioak aguantatzen".

Diskoa kaleratu aurreko asteetan eta ondorengo egunetan elkarrizketak egin eta egin ari da Idoia, eta gogoz hartu ditu, "orain arte egindako lanaz", diskoaz, egiten baitu berba, eta horretaz hitz egin gura du.

Kontzertuak apiriletik aurrera Hilaren 13ra arte itxaron behar da kontzertuetara joateko, orduan hasiko baitu bira, Eibarren. Ondorengoak hauek izango dira: Mungian, martxoaren 27an; Bilbon, maiatzaren 4an; Andoainean, maiatzaren 10ean; Gasteizen, maiatzaren 11n; Donostian, maiatzaren 19an; Madrilan, maiatzaren 23an; Viniegra de Abajon (Errioxa), maiatzaren 25ean; eta Azpeitian, ekainaren 9an.



Aramaio udalbatza, joan den asteko ezohiko osoko bilkuran. I.A.A.

Palestinaren aldeko mozioa onartu zuen udalbatzak

Sei erabaki ditu mozioak eta puntuz puntu bozkatu zituzten, alderdi jeltzaleak hala eskatuta

I.A.A. ARAMAIO

Joan den astean, ezohiko osoko bilkura egin zuen Aramaio udalbatzak, eta puntuetako bat zen Palestinaren aldeko mozioa onartzea. Sei puntu zituen mozioak eta puntuz puntu bozkatu zuten, EAJk hala eskatuta.

EH Bilduk sei erabakien alde bozkatu zuen. EAJk onartu zituen Palestinan berehalako su-etena eskatzea, Espainiako Gobernari Gazako zerrendan laguntza humanitarioa sartzeko eskatu eta ematea ziurtatzea –betiere, langile humanitarioen babesa bermatuz– eta biztanleria zibi-

laren aurkako eraso guztiak salatzea, "NBEk gizateriaren aurkako krimenak amaitzeko eta zigortzeko behar dituen mekanismoak aktibatuz".

Israelgo Gobernuarekin harreman instituzionalak etetea eskatzen zuen erabakiaren kontra bozkatu zuen EAJk; baita "Eusko Jaurlearitza eskatzea, Espainiako Gobernuari exiji diezaiotela [...] Israelekin lankidetzatza militarreko eta segurtasuneko programa guztiak bertan behera utz ditzala" erabakiaren aurka ere. Beste bi puntuetan, puntualizazioak egin zituen EAJk.



IMANOL SORIANO

Lekukoa, ikasleen eskutik eskura

Korrika Eguna ospatu zuten egubakoitzean, eta, egitarauaren barruan, Aramaio Herri Eskolako ikasleek Korrika Txikia egin zuten herriko kaleetan barrena. Lekukoa Iturrizuri kaletik eskolaraino iritsi zen herria zeharkatuta, eta, Korrika Txikia biribiltzeko, *Harro herri* abestiaren koreografia dantzatu eta txokolate-jana egin zuten.

Heriotzaren urteurrenean, galdera asko argitzear

Ekain Andres Iglesias gaztearen gurasoek 2023ko apirilaren 7an jaso zuten haren heriotzaren berri Vietnamdik; urtebete betetzear da, eta galdera asko dituzte oraindik, baita hura gogoan mantentzeko nahia ere, eta musika jaialdia antolatu dute lagunek

Mirari Altube ARETXABALETA

Motor istripua izan zuen ibilgailu batekin, Vietnamen, Ekain Andres Iglesias (Aretxabaleta, 1997) gazteak. Apirilaren 7an deitu zien Elena Iglesias eta Fidel Andres gurasoei Espainia-ko enbaxadako kontsulak, haren heriotzaren berri emateko. Urtebete betetzear da, baina gertatu zenaren gainean ezer gutxi dakite oraindik, eta erantzunen bila jarraitzen dute.

Argi-ilun asko

"Istripuaren berri izan genuenean zurrumbilo batean murgildu ginen; bien errua izan zela esan ziguten, eta horrekin geratu ginen, ez genuen beste ezer galdetu, ezta autopsiarik eskatu ere", azaldu du Iglesiasek. Istripua gertatu eta egun batzuetara, Fidel Andresen anaia bat joan zen gorpuaren bila, eta orduan bideo bat erakutsi zioten: "Han ikus zitekeen Ekain ondo zihola, beste ibilgailua gainera etorri zitzaiola eta ez zuela ezer egiterik izan". Horrek zalantzak sorrarazi zizkien. Gainera, kontsuletetik gutun bat jaso zuten: "Han esaten zen ibilgailuaren gidariak 4.000 euro ematea proposatzen zuela. Ez zen zehazten zergatik, eta guk ezetza eman genion".



The Clayton taldea kantuan, iazko apirilean egindako agur ekitaldian. IMANOL SORIANO

Ondoren, kontsulordeak jakinarazi zien epaiketa bat egongo zela, seguru asko, heriotza bat zegoelako tartean: "Argi egoteko esan zigun, Vietnamgo legea ezagututa posible zelako Ekain errudun izendatzea eta kalte-ordainak eskatzea familiari". Zalantzak izan zituzten epaiketarekin aurrera egin edo ez: "Ekain herentziari uko eginez gero bazitekeela kalte-ordainik gure gain ez hartu behar izatea esan ziguten; eta irabaziz gero, 4.000 euro direla heriotzagatik jasoko genukeen kalte-ordaina. Baina

zelan geratuko ginen ezer egin barik? Ekainen alde ezer ez egin?". Eta aurrera egitea erabaki zuten.

Prozesu oso luzea

Bidea oso malkartsua izaten dabilen arren, aurrera jarraitzen dute. Kontsulatura eskatu zuten Vietnamgo abokatuen zerrenda bat eta askori bidali zizkieten gutunak: "100i? 200i? Baina inork ez zigun erantzun. Eusko Jaur-laritzarekin jarri ginen harremanetan, erakunde askorekin ere bai, hainbat elkarterekin, baina ezer ez. Vietnamen gainean

inork ez daki ezer. Eta Alacanteko lagun batzuen bitartez, azkenean, abokatu batzuen erantzuna jaso genuen; irailaren 26an iritsi zen erantzun hori: hain zuzen ere, Ekainen urtebetetze egunean".

Prozesua oso garestia izaten dabil, eta nekeza: "Ikerketak egon behar duelako, perituak behar direlako eta abokatuak; gure usteen kontra, kostu handia dute azken horiek". Baimenak bidaltzea –abokatuek familiaren ordezkari izan daitezen– ere oso prozesu luzea izan da; irail bukaeratik Gabonak arte iraun zuen, hain zuzen ere: notariotzan idatzi, Abokatuen Elkargotik pasatu, Justizia Ministeriotik, Kanpo Arazoetako Ministeriotik eta enbaxadatik Vietnamera iritsi arte.

2024ko urtarril erdian jakin zuten epaiketa prozesua zabaldu egingo zutela, eta, gaur egun, handik zein berri iritsiko zain daude. "Ez dakigu ezer; zeintzuk izango diren epeak, zein den prozesua... eta ez dakigu zer lortuko dugun". Ez dute dirurik gura, gertatutakoa argitzea baizik; honela dio Iglesiasek: "Ibilgailuaren gidariarengandik erantzunen bat gura dut, gurekin harremanetan jar dadila".

Hara joateko asmoa

Ekainen arreba, Ibone Andres, Bali uhartean (Indonesia) dago azken hilabeteotan. Praktikak egitera joan da; hain zuzen ere, Ekain han zegoen bitartean egin gura zituenak egitera. Amaren asmoa da uztail bukaeran alabarekin elkartu eta istripua izandako lekura joatea: "Abokatuei esan diet gidariari jakinarazteko noiz egongo garen han. Zer pentsatzen duen jakin nahi dut, zer sentitzen duen..." Fidel

Andres aitak hauxe gaineratu du: "Kalte-ordainik ez dugu gura. Eta haren aurkako mendekurik ere ez. Hango justiziak erabaki dezala".

Musika-jaialdia

Epaietaren kostuei aurre egiteko, Ekainlore26 ekimena (Instagram) jarri zuten abian; eskuz egindako eguzki-loreak saltzen jardun dute, baita poltsak ere. Izandako erantzunarekin pozik daude, eta oso eskertuta, morkoa saldu dituztelako. Era berean, munduko leku askotatik jaso dituzte mezuak: "Harekin bizitakoak kontatzen dizkigute, bideoak eta argazkiak erakutsi...". Eta sekulako babesa dabilta jasotzen Ekainen kuadrillako eta lagunuen aldetik: "Une oro akordatu dira gurekin: haren urtebetetze egunean, Gabonetan... Zuhaitz bat landatu zuten, eta orain, jaialdia antolatu, urteurrenaren bueltan".

Musika-jaialdia apirilaren 6an egingo dute, 18:00etan hasita, Arlutzeko kantxan, eta oholtzan izango dira honako talde hauek: Txerrikumeak, The Clayton, Kaparrak, Etxepe eta DMT (Denso, Mutiko, Tatta). "Guztiak ziren lagunak edo ingurukoak, eta hark gustuko zuen musika egiten dute". Debalde izango da eta taberna jarriko dute dirua batzeko. Aurretik bazkaltzeko elkartuko dira guztiak, senideak, lagunak eta taldeetako kideak; guztira, ia 90 lagun. Ekainek "ereinda-koaren fruitua" jasotzen dabilta.

MUSIKA JAIALDIAN IZANGO DIRA TXERRIKUMEAK, THE CLAYTON, KAPARRAK, ETXEPE ETA DMT

Eragileekin elkarlanean

Beste bilera bat egin zuten udal ordezkariak herriko eragileekin, eta, lehenengoan legez, ordezkari asko elkartu ziren. Agenda bateratu baten beharra mahai gaineratu zuten, barne antolamendurako zein herritarren artean zabaltzeko. Baliabideen zerrenda bat ere egingo dute elkarrekin, materiala partekatzeko helburuarekin.



IBAI ZANGITU

Zuhaitza biribilgunean

Kuartelaren inguruan dagoen biribilgune berrian haritz bat eta hainbat landare –erromeroa eta astakamamila– landatu dituzte azken egunotan. Horiez gain, Durana kalean beste bi haritz ere sartu dituzte, aurretik kendutakoan ordeztu, eta martxoaren 7an haizeak bota zuen ezkia ere ordezkatu dute; haren lekuan astigar bat sartu dute.



IMANOL BELOKI



Hainbat lagun kakorrazt-lanak egiten laguntza elkartearen egoitzan. GU HAZIAK GARA

Ikastaro asko apirilean Gu Haziak Gararekin

Hainbat eskulan-saio antolatu ditu, besteak beste, kakorrazt-lanak egiteko eta josten ikasteko; helburuen artean daude belaunaldien arteko harremanak sustatzea eta gizarte bazterketa arriskuan dauden pertsonen parte-hartzea normalizatzea

Mirari Altube ARETXABAETA

Guztion ikastaroak guztiontzat izenpean hainbat formakuntza-saio antolatu ditu Gu Haziak Gara laguntza elkarteak; besteak beste, kakorrazt-lanak, gurutze-puntua eta josten ikasteko saioak. Ikasketa prozesua baino gehiago dela zehaztu dute, atzean hainbat helburu daudelako. Apirilean hasita hiru hilabete iraungo dute ikastaroek eta izena emateko epea zabalik dago, 681 65 59 39 telefono-zenbakira deituta.

Lau helburu

Ekimenak lau helburu ditu, elkartearen kideen esanetan: belaunaldien arteko eta genero-aniztasuneko kulturen arteko harremanak sustatzea, giro ludiakoan eta harmoniatsuan; gizarte-bazterketa jasateko arriskuan dauden pertsonen parte-hartzea normalizatzea herriaren bizitzan; arautu gabeko prestakuntza eskaintzea hainbat arlotan –jostintza, genero-ekitatea, kontsumo arduratsua, nekazaritza

Ikastaroak

Estanpazioa

- Apirilak 22-ekainak 17
- Astelehenak (17:00-18:30)

Kakorrazt-lanak

- Apirilak 17-ekainak 19
- Eguaztenak (17:00-19:00)

Joskintza (hasiera)

- Apirilak 23-ekainak 20
- Martitzenak (17:00-18:30)
- Eguenak (10:00-11:30)

Joskintza proiektua

- Apirilak 25-ekainak 20
- Eguenak (17:00-18:30)

Gurutze-puntua

- Apirilak 26-ekainak 21
- Egubakoitzak (10:00-11:30)

Joskintza konponketak

- Apirilak 27-ekainak 22
- Zapatuak (16:00-17:30)

ekologikoa, kultura-aniztasuna, sukaldaritza, joskintza, estanpazioa...; eta udalerrian borondatezko lana, sareko lana eta gizarte-koehesia bistaratzea.

Ordaintzeko bi modu

Ikastaro guztiek prezio bat dute dirutan (90 euro) eta beste bat denboran (bederatziko ordu boluntario). "Ikastaroei balioa ematen zaien heinean, pertsonen denborari ere balioa ematen zaio; era berean, inor ez da baztertuta sentitzen ordaintzeko dirurik ez izateagatik", adierazi dute elkartetik.

Urtean zehar gutxienez sei ikastaro emango dituzte, "erabiltzaileen nahiak kontuan" hartuta. Hala proposatu dituzte estanpazioa, kakorrazt tailerra, joskintzako saioak eta gurutze-puntua. "Erabiltzaileei zein ikastaro emango luketen galde-tuko zaie; horrela, bermatu egingo da gizarte-bazterketa arriskuan dauden pertsonen parte-hartzea eta boluntariora sustatzea".



UDAKo hainbat kide, Arantzabal elgetarra eta Plaza markinarra, joan den egunean. M.A.

UDAKo taldeak ekin dio Hiru Txirlo bola-txapelketari

Taldea indartu egin da, jokalar gehiago sartuta; Aretxabaletako jaurtialdia apirilaren 13an izango da

M.A. ARETXABAETA

Martxoaren 16an eman zioten hasiera Gipuzkoako 53. Hiru Txirlo Bola Txapelketari, eta UDAKo taldea dago lehiakideen artean. Azkoitian eta Elgoibarren izan dituzte lehen jaurtialdiak, eta, aretxabaletarrek irabazterik lortu ez badute ere, sailkapeneko aurreko postuetan dago kideren bat edo beste; Maialen Mendieta, esaterako, hirugarrena da.

"Gogotsu" ekin diote txapelketari, jokalar berriekin indartuta; azken horien artean daude Haizea Arrieta, Zuhaitz Ezkurra, Jokin Bengoa, Jose Luis eta

Beñat Beitia, eta Mendieta bera. Aurtengo erronka izango da iazkoari eustea. "Azken txapelketako emaitzak lortuz gero, pozik", dio Gorka Madinabeitiak, eta gaineratu du: "Ondo pasatzea ere bada helburua, eta horretarako giro ona bermatuta dago". Taldea eguenetan elkartzen da bolatokian entrenatzeko, eta edonork du aukera probatzeko.

Hilaren 13an Aretxabaletan Aretxabaletan apirilaren 13an egingo dute txapelketako jaurtialdia, 17:00etan. Eta aurretik, hilaren 6an, Elgetan.



JUAN MARI ERRASTI

Errasti eta Ibabe txapeldunak

Errendimenduko Gipuzkoako Pilota Txapelketako mendebaldeko hainbat final jokatu ziren egubakoitzean, eta infantil mailakoa Iturrigorri pilotalekuan izan zen. UDAKoek, Joanes Errastik eta Egoitz Ibabek, Bergarako bikotea, Fernandez eta Muruamendiaraz, izan zuten aurrez aurre; eta etxeok nagusitu ziren, 18-9.



Martxoko ezohiko osoko bilkuran, Eusko Legebiltzarrerako hauteskunde mahaietako kideak hautatzeko zozketa egiten. I. BELOKI

Gimnasio berrirako ekipamendua hizpide

Manuel Muñoz kiroldegian egiten ari diren gimnasiorako ekipamendua hornitzeko materiala izan zuten berbaigai udalbatzako kideek martxoko ezohiko osoko bilkuran; eta interesa piztu zuen apirilko hauteskundeetako hauteskunde mahaien zozketak

Imanol Beloki Unamuno ESKORIATZA Martxoko ezohiko osoko bilkura egin zuten Eskoriatzako udalbatzako kideek martxoaren 21ean. Bertan landutako gai azpimarragarriena izan zen Manuel Muñoz kiroldegiko fitness eta kardio aretoen ekipamendua *leasing* bidez –alokatze eta eroste sistema mistoa– hornitu, jarri eta mantentze-lanak egiteko kontratazioan espedientea onartzea eta lehiaketarako deialdia egitea. Hala ere, gai-zerrendara erreparatu, interes handiagoa izan zuten apirilaren 21ean Legebiltzarrerako hauteskundeetan hauteskunde mahaietako kideak hautatzeko zozketan nor irten zen jakiteko.

Kiroldegiko lanak, martxa onean Manuel Muñoz kiroldegiko gimnasio berrirako ekipamendua hornitzea izan zuten hizpide Eskoriatzako udalbatzako kideek martxoko ezohiko osoko bilkuran. Urtarrilean hasitako lanak martxa onean doazela azaldu zuten lehenbizi Edorta Zubiza-

rretak, Eskoriatzako alkateak, eta, aurreikuspenen arabera maiatzerako bukatuta egongo direla azaldu zuen. Horrez gainera, Mikel Luengok, Eskoriatzako Udaleko Kirol zinegotziak, gaineratu zuen aurreikusi baino lehenago amaituko dituztela lanak: "Gimnasioa lehenago bukatuta egongo den arren, makina berriekin hornituta irailerako egongo da. Lizitazioa atera dugu 150.000 eurokoa, makina berriak erosteko. Aukeratuta ditugu nolako makinak nahi ditugun, eta espero dugu jendearen gustukoak izatea...".

Horren baitan, oposizio kideek proiektuarekin bat egiten dutela azpimarratu zuten, nahiz eta *leasing* bidez egitea-

AURREIKUSPENEN ARABERA, MAIATZERAKO AMAITUTA EGONGO DA GIMNASIOA

rekin ez dauden guztiz ados. Hain zuzen, Josu Ezkurdiak, Eskoriatzako EAJko bozemaileak, esan zuen "pozik" daudela eurek proposatutako obra aurrera doala ikusita: "Obrak egin eta gero, gimnasio berria hornitzeko makinak jartzea izan da gaur onartu duguna. Askok poztzen gaitu aurreko agintaldian martxan jarri genuen proiektuaren lekukoa EH Bilduk hartu izanak. Proiektuaren nondik norakoak martxan jarri genituen, erabiltzaileekin ere izan ginen ekipamendua definitzeko, eta, proiektua aurrera bidean, albiste pozgarria da. Hala ere, inbertsioei erreparatu, ez dakigu bestelako proiekturik egingo den. Guk, esaterako, kultura etxean musika eskola proiektua jartzea edo bidegorria Gatzagako mugaraino egiteko proiektuak jartzen ditugu mahai gainean... Gure asmoa elkarlanean proiektu hauek proposatzea eta aurrera eramatea da".



Manuel Muñoz kiroldegiko igerilekuan puzgarriak jarri zituztenekoa. GOIENA

Puzgarriak jarriko dituzte igerilekuan bi egunetan

Apirilaren 1ean eta 2an uretan jarriko dituzten puzgarrietan jolasteko aukera izango dute gaztetxoek

I.B ESKORIATZA

Pazko Asteko opor egunetarako ekintza egitaraua prestatu du Eskoriatzako Udalak, eta, horren baitan, Manuel Muñoz kiroldegiko eskaintza bikaina izango da herriko txikitxoentzat. Izan ere, beste urte batzuetan moduan, puzgarriak jarriko dituzte igerilekuan, eta adinaren arabera banatuta sartzeko aukera izango dute bertako jolasetara.

Txikienak lehenbizi

Hain zuzen ere, ordutegiari erreparatu, 17:00etatik 18:30era 8 urtera arteko haurrentzat ire-

kiko dituzte ateak, eta heldu batek lagunduta joan beharko dute uretako puzgarrietara –nagusiek ez dute ordainduko–. 18:30etik 20:00etara bitartean, 9 urtetik 12 urtera artekoek, biak barne, izango dute aukera jolasetan aritzeko. Kasu horretan, ez dute nagusi baten laguntza ezinbestean izan behar.

Prezio sinbolikoa

Prezioari dagokionez, kiroldegian abonatuak direnek doan izango dute sarrera, eta abonatuak ez direnek, berriz, hiru euro ordaindu beharko dituzte.



INAKI KORTAZAR

Euskal Herriko txapelkunordeak

Jose Regaño eta Javier Eraña eskoriatzarrak Euskal Herriko Mus Txapelketan txapelkun geratu dira, Altzain (Zuberoa) Tafallako Carlos Gomezen eta Alberto Lizarren aurka galdu ostean. Euskal Herriko txapelketako hamabosgarren txapela izan dute jokoan, eta, finalera iritsita, bigarren postuarekin konformatu behar izan dute eskoriatzarrek.

Imanol Beloki Unamuno GATZAGA

Dorleta Elkorobarrutia Pagoaga (Leintz Gatzaga, 1973) da Leintz Gatzagako alkatea (Hautesle Elkarte), eta haren lehenengo agintaldian buru-belarri sartuta dago. Asteon, Goiena telebistako *Harira* saioan izan da, eta, bertan aitortu duenez, alkatetzan egokitzapena eginda, lan-taldean poliki-poliki martxan ari dira herriko beharrei aurre egiten.

Talde sendoa errotzen

Zinegotzi izandako garaia gogoan izanda egin zituen lehenengo urratsak Dorleta Elkorobarrutiak Gatzagako Udaleko jardunean, eta, lehen pauso haiek oroituz, Eugenio Otsoa izan du gogoan. "Urte asko dela izan nintzen zinegotzi eta Otsoarekin hasi nintzen administrazioko ibilbide hau. Egia esan, maisu batekin hasi nintzen garai hartan; hala ere, gauzak aldatu egin dira, eta hura ordezkatzeko presioa du. Ardura handia da, eta, konparaziotan aritu gabe, ikasten ari gara, beti egon gara herrigintzan haren alboan, eta herriak ere laguntzen du lan horretan. Hasierako hiruhilekoan ikusten eta ikasten izan gara, eta orain lasaiago hasi gara martxa hartzen". Hautesle Elkarte osatzen dutenak ere izan ditu hizpide: lau emakumezko eta gizonezko batek osatzen dute; eta horietako bik ezagutzen dute udal jarduna. "Juanito Bengoa, esaterako, aurreko agintalditik mantentzen da. Lotura hori egitea garrantzitsua zela uste genuen; hura da gure artean baserri eremuan bizi den bakarra; aurreko agintaldian basoko kontuak ere hark eramaten zituen, eta ez daukagu hark besteko jakituriarik arlo horretan... Harekin eta gainontzekoekin lantalde polita osatu dugu.

Herrigintza ardatz

Gatzaga moduko herri txiki batean lan egiteko moduaren gainean galdetuta, "herrigintzatik oso gertu dago herri txiki baten lan egiteko modua", dio Gatzagako alkateak, eta honako hau gaineratu du: "Badaude erabaki batzuk Udalean hartu behar direnak, baina, batzuetan, tokatzen da auzolanean aritzea, aurrekontuak onartzea, sasiak garbitzen aritzea, langileekin egotea... Denetik egin behar da".

Foru Funtsetik jasoko duten dirua ere inflexio puntu bat



Dorleta Elkorobarrutia Pagoaga, Leintz Gatzagako alkatea, astelehenean, Goienako platoan. IMANOL BELOKI UNAMUNO

"Agintaldiko egiteko nagusia herria bizirik mantentzea izango da"

Udal jardunaren eta herrigintzaren artean dagoen gertutasuna, erabilera askotariko espazioak izandako harrera eta proiektu berriak, turismo jasangarria eta bestelakoak izan ditu berbagai Gatzagako alkate Dorleta Elkorobarrutiak 'Harira' saioan

izango dela nabarmendu du Gatzagako alkateak. "Ezinbestekoa" herrian gauzak egiteko. Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Eudelek adostuta, 1.100 biztanle baino gutxiago dituzten herrien finantzaketa indartzeko. "Indarrean datorren urtetik aurrera sartuko litzateke, eta guretzat aldaketa esanguratsua izango da, ekonomikoki oso garrantzitsua. Gurea moduko herri txiki batean edozein aldaketak eragin handia du, eta obra handiak egiteko arazo handiak izaten ditugu. Oso berrona izan da".

"LEINTZ GATZAGAN UDALEKO JARDUNA HERRIGINTZATIK OSO GERTU DAGOELA USTE DUT"

Inbertsioak, zehaztuta

Aurtengo aurrekontuak onartuta dituztela eta egin nahi dituzten inbertsioak ere zehaztuta dituztela azaldu du. Onartutako aurrekontuetatik 30.000 euro bideratuko dituzte Gaztainuzketa Mendi Etxeetara. "Urteak dituzte mendi etxeek, eta egokitzapen lanak behar dituzte. Zuhaitz batzuk bota ditugu, segurtasuna bermatzeko, teilatu batzuk ere konpondu behar ditugu... Gaizka da bertako zerbitzua eramaten ari dena duela bi urtetik, eta oso gustura gaude harekin. Gertu dago gugandik, esker onekoa da, Interneten izaten dituen balorazioak ere oso onak dira... Negozioa hartu berri, jatetxea jartzea ere ikusten zuen, baina bide horretatik zarata ekarriko luke, aparkamenduan, akaso, aldaketa... eta, erakarri nahi duen

jende mota ikusita, lasai egoteko lekua eskaini nahi du...".

Inbertsioekin jarraituz, 25.000 euro San Miguel plaza inguruko etxebizitzak isolatzera bideratu nahi dituztela ere azaldu du. "Plaza inguruko hiru portaletan egin nahi dira lanak, bertako bizilagunek hala erabakita. Udalaren jabetzako lokalak ere baxuan izanda, horiek ere isolatuko ditugu. Inbertsio horrez gain, aparkalekuak ere aztertuko ditugu; gehiago, agian, ez ditugu egingo, baina daudenak egokitu eta herri barruan goialdeko aparkalekuak bereziki

"TURISMO JASANGARRIA NAHI DUGU, HORRETARAKO ZERBITZU MINIMO BATZUK ESKAINIZ"

markatu eta egoera onean jarri". Horrez gain, herrik zeharkatzen duen harrizko galtzada konponatzeko gogoa dutela ere azaldu du. "Ez dugu bitartekorik, baina herriaren bizkarrezurra da, azpitik doa azpiegitura osoa, eta izugarriko dirutza da; hasiko gara ate joka. Edozelan ere, agintaldi honetako egiteko nagusia herria bizirik mantentzea izango da".

Erabilera askotariko gela

Eskola izandako espazioan eta Jakioneko bulegoa egon zen espazioan aldaketak egin dituzte, eta Garro jauregiko zerbitzuak eta bestelakoak han eskaini. "Irisgarritasun aldetik egokiagoa da espazio berria; liburutegia, ludoteka zerbitzua, euskara eskolak eta antzerki saioak ematen ditugu. Horrez gain, alboko espazioan herriko taldeak elkartzeko atonduko ditugu gelak. Jakion zegoen espazioan herri-tarrek eskatutako gimnasioa egitea da asmoa, bestalde. Proiektua marrazten hasi gara; ikusiko dugu noiz egin dezakegun. Garro jauregiari dagokionez, husten joan gara espazioa: ludoteka, liburutegia... genituen han goiko aldean; espazio handia da, berotzeko handiegia, garbitzeko ere bai, eskailerak ditu. Eta espazio berria erosoagoa da. Gero ikusiko dugu Garro jauregian zer egin".

Herri turistikoa zaindu beharra

Gaur-gaurkoz Gatzagan 210 pertsona daudela erroldatuta ere azaldu du Elkorobarrutiak, eta, biztanlerian gora eginda, oro har jende gaztea dela azaldu du. Bisitariengan arreta jarri behar dela ere nabarmendu du, haiek zaindu behar direla: "Turismo jasangarria nahi dugu Gatzagan, eta hori aurrera eramateko zerbitzu minimo batzuk eskaini behar dira; horretan eragin behar dugu turismoa hobetu nahi badugu. Gatz Museoan, esaterako, bideo erakargarri bat egin, QRak jarri, panel informatiboak... Lan horretan ari gara, eskaintza hobetu nahian".

Saioa gaur ikusgai

Dorleta Elkorobarrutiari Goiatz Arana kazetariak egindako elkarrizketa osoa gaur, eguaztana, izango da ikusgai Goiena telebistan, 18:15ean, 20:15ean eta 22:15ean.



Udaleko mendiko taldeko langile bat txukuntze lanetan, Elosumendi-Irukurutzetako monumentu megalitiko batean. B.U.

Dolmenak, museoa eta turistentzako plan zabala

Dolmenen ibilbidean garbiketa lanak egin dituzte Udaleko mendi taldeko langileek, apirilaren 1ean hasiko diren irteera gidatuei begira. Laboratorium museoa ere prest dauka Aste Santurako eskaintza berezia, ireki berri duten erakusketa bat eta guzti

Jokin Bereziartua Lizarazu BERGARA Aste Santurako turismo eskaintza zabala izango da aurten ere. Bergarako herrigunea berez den interesguneaz harago, bereziki dolmenen ibilbidea eta Laboratorium museoko eskaintza zabala izango dira amu nagusi.

Txukuntze lanak dolmenetan

Dolmenen ibilbidearen balioa gizarteratzen jarraitzeko asmoz, Elgoibarko, Bergarako eta Soraluzeako udalek, Debegesa garapen agentziarekin elkarlanean, bisita gidatuak antolatuta dituzte apiriletik aurrera, eta, bisita gidatu horietarako dolmenak eta horien inguruak ahalik eta txukunen mantentzeko asmoz, asteen Bergarako Udaleko mendiko lantaldeak Elosumendi-Irukurutzetako mendi lerroan dauden monumentu megalitikoak garbitu ditu. Lan "konplexuak" direla-eta, udal langileekin batera Aranzadi zientzia elkarteko Jesus Tapia arkeologoa egon da lanotan. Hamar monumentu

txukundu dituzte, guztiak Bergaran kokatuak, nahiz eta muga egin Azkoitia, Elgoibar eta Soraluzearekin. Tumuluak, dolmenak, trikuharriak, zutarria... denetariko monumentu megalitikoak garbitu dituzte.

Dolmenen ibilbide gidatua berderatzi kilometrokoa da eta hiru ordu eta erdi irauten du, Karakaten hasi eta Irukurutzetaraino. Aldez aurretik izena eman behar da: 657 79 46 77 edo info@begi-bistan.com. Lehen irteera apirilaren 1ean egingo dute.

Museoa, beti erakargarri

Laboratorium museoa eta bertako eskaintza izango da aurten ere turistentzako interesgune nagusietako bat. Honako ordu-

MUSEOKO SAIOETAN LEHENBAILEHEN IZENA EMATEA KOMENI DA, ESKAINTZA ZABALENA IZATEKO: 943-76 90 03

tegi hau izango du museoa Aste Santuko oporraldian: jaiegunetan, 10:00etatik 13:00etara; zapa-tuan, 10:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik 19:00etara; apirilaren 5ean, egubakoitza, 10:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik 19:00etara; eta, gainerako egunetan, 10:00etatik 14:00etara.

Bergara Monumentalaren, Lorategi Historikoen eta museoaren bisita gidatuetan izena emateko aukera badago, baina Laboratoriumeko arduradunek jakinarazi dute komeni dela aldez aurretik izena ematea lehenbailehen: "Deitzen goiztiarrenak direnek aukera gehiago izaten dituzte nahi duten bisita nahi duten hizkuntzan erreserbatzeko. Erreserba batzuk lotuta ditugu dagoeneko, eta, beraz, komeni da lehenbailehen deitzea". Izena emateko: 943-76 90 03. Horrez gain, ekonomia zirkularren gaineko erakusketa jartzen amaitu zuten atzo, eta hori ere ikusgai egongo da bisitariarentzat.



AITOR AGIRIANO

'Herrantxi'-ren duelua ikasleekin

El conquistador del Caribe saioaren 17. edizioan parte hartu zuen Julen Herran *Herrantxi* bergarra *Galdegazte* saioan izan da, Mariaren Lagundiko ikasleekin. Platoan Martin Da Silva, Lucia Igarza eta Nora Gisasola izan dira eta errealizazio-gelan, Maren Ugalde, Lur Mendieta eta Nora Ugalde. Apirilaren 9an emitituko da saioa Goiena telebistan, 19:30ean, 21:30ean eta 23:30ean.



BERGARA OINEZ

Itzuli da Bergara Oinez ekimena

Martxoaren 21ean egin zuten 2024ko Bergara Oinez barruko lehen irteera – argazkian –. Seigarren edizio honetan ere bergararren osasuna zaindu eta herritarren arteko harreman berriak sustatu nahi dituzte. Gehienez ordu eta erdiko irteera errazak dira eta amaieran hamaiketako osasuntsua egoten da; hamalau eragilek hartu dute parte. Hurrengo irteera apirilaren 11n izango da.

Bakarrizketa saioa Sorturen udaberri feministaren barruan

Bergarako Sortuk astelehenean eman zion hasiera Udaberri Feminista ekimenari. Hurrengo saioa apirilaren 12an izango da, *Euskara, gazteak eta beste piztia mitologiko batzuk* izeneko bakarrizketa musikatuarekin; kartzela zaharrean izango da, 22:30ean. Maiatzerako, berriz, bakarrizketa bat eta bertso saio bat antolatu dituzte Arrano tabernan.

Korrika Kulturalari esker, 'Bizkarsoro' filma ikusteko aukera

Korrika Kulturalaren barruan, apirilaren 9an *Bizkarsoro* filma ikusi ahaliko da Seminarixoan (19:00), eta, ondoren, Josu Martinez zuzendariarekin solasaldia egingo dute. Horrez gain, apirilaren 16an, *Euskararen egoera gaur. Zer diote datuek?* izeneko hitzaldia egingo du Iñaki Iurrebasok udaletxeko osoko bilkuren aretoan, 19:00etan hasita.



Euskadiko Ikasleen Orkestraren kontzertu bat, 2023ko urrian. EIO

Euskadiko Orkestraren harrobia dator, lehen aldiz

Euskadiko Ikasleen Orkestrak (EIO) lehen aldiz joko du Bergaran, Musika Eskolaren 40. urteurrena ospatzeko; apirilaren 6an izango da, Santa Marina elizan (12:30). Alazne Suinaga, Beñat Askargorta eta Lander Mujika bibolin-jole bergararrak bertan egongo dira

Jokin Bereziartua Lizarazu BERGARA Bergarako Musika Eskolak 40 urte bete dituela ospatzeko ekitaldien barruan, Euskadiko Ikasleen Orkestrak (EIO) kontzertua emango du lehen aldiz Bergaran. Opor giro betean izango da emanaldia; apirilaren 6an izango da, Santa Marina elizan (12:30), eta sarrera doakoa izango da. Musika eskolatik heldu zen eskaera begi onez ikusi zuten EIOko arduradunek, hiriburuetatik harago herrietan ere jotzea beti aberasgarria dela iritzita. Kontzertu horretan egongo dira Alazne Suinaga, Beñat Askargorta eta Lander Mujika biolin-jole bergararrak.

"Maila goreneko" kontzertua Euskadiko Orkestraren harrobiak "maila goreneko" kontzertua emango duela aurreratu du Iker Sanchez zuzendari musikalak: "Ideia ona iruditu zitzaigun Bergaran jotzea; are gehiago, orkestran hiru ikasle bergarar ditugula jakinda. Oso gogotsu gaude gure lana bergararrekin partekatzeke. EIOren kontzertu guztiak dira bereziak; Bergaran ere ia 100 ikasle bilduko ditugu. Errepertorioa ezaguna izango da, eta maila gorenekoa. Erronka zailak izan ohi dira gure kontzertuak, baina beti heldu izan gara ondo; hunkigarria da gazte horiek,

adibidez, Beethovenen bosgarren sinfonia jotzen ikustea. Halako obra handi bati aurre egitea ez da lan erraza, eta gazte horiek sekulako talentua dute. Lehen entsegu edo irakurketa bat egin genuen joan den astean, eta oso ondo joan zen. Ziur kontzertu itzela izango dela".

Sanchez, bigarrenez Bergaran Hain zuzen, Aste Santuko oporraldia baliatuko dute EIOko "familia" elkartu eta goiz zein arratsaldez entseatzeko. Bilbon, Gasteizen, Bergaran eta Donostian izango dira hurrengo kontzertuak. "Hiriburuetan jo ohi dugu, normalean, baina beti da polita eta ezberdina herrietan ere jotzea. Gogoan daukat Eus-

DONOSTIAN, BILBON ETA GASTEIZEN JOTZEAZ GAIN, IKASLEEN ORKESTRAK BERGARAN JOKO DU

IKER SANCHEZ ZUZENDARIAREN ARABERA, "MAILA GORENEKO" PIEZAK JOKO DITUZTE

kadiko Orkestra zuzendu nuela duela 15 bat urte, Bergarako Musika Eskolaren 25. urteurrenean, frontoian eman genuen kontzertu batean. Beti da ederra bestelako lekuetan kontzertuak ematea", dio Sanchezek.

Gainera, orkestra sinfoniko batean ohikoak ez diren instrumentuak ere izango dira Bergarako kontzertuan: akordeoia, pianoa eta saxoa presente izango dira, esaterako. Errepertorioan honako pieza hauek daude: Dmitri Xostakovitx-en *Bigarren Jazz Suitea*, Pablo Lopez klarinete bakarlariarendako Gioachino Rossiniren obraren bariazio batzuk –Lopez EIOko ikasle izandakoa da– eta Ludwig van Beethovenen bosgarren sinfonia. Ordu bete pasa iraungo du.

Gazteen "energia berezia" EIOko zuzendariak dei egin die herritarrei apirilaren 6an Santa Marina elizara joan daitezten: "Errepertorio eder batez harago, sortu ohi den energia bereziaz gozatu ahalko dute. Izan ere, orkestra profesional batekin alderatuz antzeman daitezkeen hutsuneak gazteek euren energiarekin orekatzen dituzte. Gainera, badakit hiru ikasle bergararrak oso gogotsu daudela etxean jotzeko. Herritarrek etor daitezela, ez zaie-eta damutuko".



NIRE USTEZ

JOANES PLAZAOLA

Bergaran pisu bila?

Ez dakit norbaiti tokatu zaion Bergaran pisu bat alokatzen saiatzea. Bueno, Bergaran, edo ia edonon. *Idealista*-n sartu, eta ezer ez, eta, egonez gero, hobe prezioari begiratu ere ez egitea. Inmobiliarietara ere joan zaitezke, eta pisurik lortzeko zortea izanez gero honorarioak ordaintzera nola derrigortzen zaituzten ikusi. Akaso, beltzean, honorarioak kobratzea ilegala baita. Edo okerrago, zuzenean "beste profil bat bilatzen dugu" bat jasotzea, "nomina kaskarregia duzu" edo "zure arrazakorik ez dugu nahi"-ren bertsio eufemistikoa. Behin etxea aurkituta arazoak amaitu direla pentsatuko bagenu, oker geundeke; etxejabeak esango digu nahiago duela kontraturik ez egin, edota etxetresnak matxuratzen direnean ordaintzea guri tokatzen zaigula. Bat-batean, pisua bere alabak behar duela, zu bidali eta gutxira bere alabaren antz handirik ez duen gizon bati alokatzen dion bitartean. Hau guztia eta gehiago eguneroko ogia dira etxe bat alokatu beharra dugunontzat. Abusu hauei aurre egiteko, batu etxebizitza sindikatura. Jabeen inpunitatea amaitu! Doako eta kalitatezko etxebizitza unibertsal!

Apirilean hainbat ekintza izango dituzte San Joxepe elkarteak

Apirila ekintzaz beteta izango dute San Joxepe erretiratu elkarteak: apirilaren 10ean, udaberriko festa ospatuko dute, arratsaldean egingo duten mokadutxoarekin; apirilaren 11n, Bergara Oinez ekimenean hartuko dute parte, 10:00etan Agorrosinen elkartuta; apirilaren 15ean eta 22an, oinarrizko txalaparta ikastaroa izango dute

10:30etik 11:30era, Bergarako Musika Eskolako Angel Agiriaren eskutik; apirilaren 18ko Bermeorako irteerarako bi autobus antolatuko dituzte; apirilaren 17an, 25ean eta 26an, Arrasateko eta Oñatiko erretiratu elkarteak aurka askotariko jolasetara lehiatuko dira, Agijupens federazioak antolatuta; eta, egitaraua amaitzeko, mendi ibilaldia egingo dute Orereta inguruan, Orereta Beti Bizkor elkartearen gonbidapenari esker. Edozein zantza argitzeko: 943-76 10 59.

OHARRAK

Pentekosteetarako kartel lehiaketa martxan

Jaietako kartel lehiaketako izen-ematea zabalik dago, apirilaren 18ra arte; BAZen, 13:00ak baino lehen. Sari nagusia izango da 400 euro erosketa-bonutuan. Informazio gehiago: www.bergara.eus.

Egur-loteak jasotzeko behin-behineko zerrenda

Inausketa lanetan sortutako egurra doan emango diete izena eman zuten herritarrei. Erreklamazioak jarri ahalko dira apirilaren 8ra arte; zerrenda ikusgai dago www.bergara.eus-en.

Euskal presoen aldeko zozketako zenbakia

Erramu-zapatuko zozketako zenbaki irabazlea 1.227 da –ordezkoa, 2.229–. Bertako produktuz osatutako orga bat da saria.

Apirilaren 21eko hauteskundeak: botoa postaz

Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeetarako posta bidez botoa emateko aukera ireki du Bergarako EH Bilduk: Irala kaleko Bilgunean egongo dira apirilaren 16ra arte; martitzenetan 11:00etatik 13:00etara eta eguenetan 17:30etik 19:30era. Bergarako EAJk ere zabalik dauka posta bidez botoa emateko aukera: batzokian eman daiteke posta bidezko botoa, astelehenetik egubakoitzera, 11:00etatik 12:30era eta 18:00etatik 19:30era.

Gogotik ospatuta geratu da Erramu-zapatua

Jendetza joan zen zapatuan goizean goizetik azokara, herriko musikari eta dantzariak nahiz Aurtitzeko joaldunek herria girotzen zuten bitartean; hala ere, herri bazkariaren ostean, festak jarraitu zuen, musikak lagunduta, gauera arte

Idoia Aranbarri Arzuaga BERGARA Urteko egunik garrantzitsuenetako bat ospatu zuten zapatuan Bergaran: Erramu-zapatua. Goizeko zeru grisa ez zen aitzakia izan etxean geratzeko. Goizean goizetik Ibargarain, Simon Arrieta plazan, San Martin plazan eta Seminarixoko patioan jarri zituzten azokako postuak eta abere feria; baita talo postua eta

Harrera elkarteak ustiatu zuen Eusko Labelen postua ere. Jardunek antolatutako txorimalo erakusketa ere jarri zuten Ibargarai kalean.

Bergarako Musika Eskolako trikitilariak, fanfarre taldeak, dantzariak eta Aurtitzeko joaldunek alaitu zituzten kaleak, eta herritarrek Ekoudalatxen eskutik ukendu solidoa egin

edota Erlantz Olabariaren kanela tailerlean parte hartu zuten.

Gauera arte jarraipena

Herri bazkaria egin zuten frontoian, eta arratsaldeko egitaraua osatu zuten puzgarriek, zezentxoek eta dantzaldi-erronomia ibiltariak; eta Bad Sound System taldearekin dantza egiteko aukera egon zen Munibe plazan.



Abereak bertatik bertara ikusteko aukera egon zen Ibargarai kalean.



Zekorrak Ibargarai kalean.



Karmen Etxeberria bere postuan baserriko produktuak eta erramua saltzen.



Eguerdi aldera azokan elkartu ziren herritarrek postuen bueltan. ARGAZKIAK: IMANOL SORIANO



Aurtitzeko joaldunak Barrenkalean.



Begarako Musika Eskolako trikitilariak herriko plazan.



Landareak erosteko aukera egon zen.



Garazi Blazquez eta Deiane de Borja, eurek egindako txorimaloarekin.



Azokako salmenta postu bat.



Artisau postu bat San Martinen.



Bergarako Musika Eskolako trikitilariak Munibe plazan.



Haurrak kandela tailerreko kandeekin, atzean erle-panela dutela.



Bergarako Musika Eskolako dantzarien emanaldia Munibe plazan.



Bergarako kuadrilla bat, eskuetan taloak dituztela.



KARMEN ETXEBERRIA
ETXAGUE AZPIKOA BASERRIA

"Oxirondon egoten naiz, eta gaur kanpora atera gara. Eztaia, barazkiak, zukuak eta ogia ekarri ditut; baita erramua ere, baina ez du estimazio handirik".



IBAI SANZ
HARRERA ELKARTEA

"Aurten guri egokitu zaigu Eusko Labelen postuan egotea. Solomoa ekarri dute, eta pintxoek eta edariek arrakasta itzela izan dute".



XANTI ARAKISTAIN
ITZIARKO ABELTZAINA

"Esnetarako lau behi ekarri ditugu. Erramu-zapatura askotan etorri izan gara. Azken lau urteetan ez gara etorri, baina jendeak etortzera animatu gaitu".



ESTEBAN MENDIKUTE
ARTISAU

"Erakustaldia egiten dugu gaurko egunez. Guk egiten dugunaren laburpen bat ikus daiteke postuan; hobeto ikusten da gure lana Gabonetako erakusketan".



IDURRE ARANGUREN ETA NEREA ALTUNA
EKODALATX

"Minaren aurkako ukendu solidoa egin dugu, bestetan baino argizari gehiago botata. Erraz jarraitu dute tailerra eta denak konforme geratu dira".



Antzuolako txosnagunerako prestaketak egiten, iazko jaietan. A.R.K.

Txosna Batzordea "gogoz" da, baina "indarrik gabe"

Batzordekideek jakinarazi dutenez, egunerokoa antolaketan aritzeko jende falta da arazo nabarmenena, eta, ondorioz, txosnagunearen ardura "gutxi batzuek" izan ohi dute. Hala, laguntzeko prest dagoen oro gonbidatu dute apirilaren 7ko batzarrera

Amaia Ramirez de Okariz
Kortabarria ANTZUOLA

Uztailaren 18tik 21era ospatuko dira aurten Antzuolako jaiak, eta lehen urratsak egiten hasia da Txosna Batzordea; hala ere, zaharrak berri, batzordekideek jakinarazi baitute kolokan egon daitezkeela aurtengoan ere txosnak, "gogotsu" egon arren "indar askorik" ez dutelako: "Bilera eguna jarri genuen duela bizpahiru aste, eta bederatzi pertsona batu ginen, zehazki. Urteroko kontua da: berdinek gabiltza antolakuntza lanetan, eta ez dugu aukerarik ikusten aurrera egiteko", adierazi du Garazi Kortabarriak, Txosna Batzordeko kideak.

Haren hitzetan, "errelebo al daketa baino gehiago, jende falta da" egungo arazo nabarmenena; batik bat, antolaketan konpromisoa hartuko dutenen pertsonena, horren zergatia ezezaguna zaien arren. "Ez dugu bestelako arazo zuzenik ikusten: jende faltak dakartzatza gainontze-

ko problemak. Karga handiena pertsona jakin batzuek hartzen dute, eta horiek guztiek nekaztuta bukatzen dute. Motibazioa galtzea ere badakar, eta, ondorioz, urtez urte gero eta jende gutxia egotea lanerako prest".

Batzarra egingo dute

Lehen batzar hura egin ostean, sare sozialetan zabaldu zuten, txosnak ez jartzeko erabakia hartu zuten batu zirenek, baina, azkenean, beste bilera baten aldeko hautua egin dute, haiei ere "pena" ematen dielako txosnarik gabeko jaiak imajinatzea. "Denok nahi izaten dugu txosnak egotea: ongi pasatzeko gune bat da, ez baitira asko izaten jaietan. Gainera, txosna batzorde baten

TXOSNETAN TXANDAK EGITEA ESKERTU DU BATZORDEAK, BAINA EZKUTUKO LANA ERE BADELA AZALDU DU

atzean beti daude bestelako lanetarako; esate baterako, euskarari, feminismoari eta auzolanari dagozkionak".

Hain zuzen, apirilaren 7an, domeka, egingo dute bigarren batzarra, arratsaldeko bostetan, Antzuolako gaztetxean. "Egia da jaietako lau egunetan txandak egiteko jendea batzen dela, eta hori eskertzekoa da, haien jardunetik gabe ezingo liritekeelako txosnak mantendu; alabaina, ezkutuko lana egiteko jendea beharrezkoa dugu, hala nola azpiegitura zehazteko, edariak enkargatzeko, programazioa osatzeko eta bestelako zereginak banatzeko".

Hori guztia posible izan dadin, beraz, "konpromisoa, inizatiba eta gogoa" beharrezkoak zaizkio Txosna Batzordeari, eta, hala, "laguntzeko edo antolatzeko prest dagoen edonori" batzarrerako gonbita egin die, haien parte-hartzea ez ezik, esku artean dituzten proposamenak ere "ongieterriak" izango direlako.

NIRE USTEZ

ION LIZARAZU

Antzuolako erara

Joan den martxoaren 9an Mikel Sarriegi beasaindarraren *Gipuzkoako dantza-maisuen puntuak eta aldairak*. Oinordetza ezkutua liburuaren aurkezpenan izan ginen Oinarin dantza taldetik. Hogei urteko ikerketa baten emaitza da aurkeztu zen liburua, Gipuzkoa osoko dantzakerak aztertu eta tokian tokiko moduak dokumentatu eta biltzen dituen. Liburuan presente dago Antzuolako dantzakera ere, pisu handiz gainera, eta ez mantendu diren koreografiengatik, baizik eta dantzakerarengatik.

Harritzekoa da, ezbairik gabe, zenbat eratarik dantzatu daitezkeen musika berarekin pauso berdina, eta sarri jatorri bera dutenik ere ezin imajina. Baina dantza gorputzaren hizkuntza den heinean, eta hizkerak batetik bestera aldatzen diren gisara, berdin dantzakerak ere.

Gurean jazo dira aldaketak, baina badira gaurdaino gorde diren Gipuzkoako molde zaharrekoak diren pausoak, eta dantzan ere, hizketan bezala, esan dezakegu: "Hau Antzuolako erara".

Google Fit, Wikiloc eta Canva erabiltzen ikasteko aukera

Udal liburutegiak antolatuta, bi ikastaro egiteko aukera izango dute herritarrek apirilean KZgunean: batetik, *Egon zaitez aktibo Google Fit eta Wikilocekin* izenpean, bi aplikazio horiek erabiltzen ikasteko parada izango da apirilaren 12an, egubakoitzean, 18:00etatik 20:00etara; hain justu, Google Fitekin jarduerari fisikoa erregistratzen du, urratse-

tan oinarrituta; Wikilocetik, berriz, askotariko ibilbideak ikusteko eta erregistratzeko aukera ematen du. Bestetik, *Canva, ikasi diseinatzen* tailerra egingo dute apirilaren 15etik 17ra bitartean, astelehenean eguaztentera, 18:00etatik 20:00etara.

Izen emateari dagokionez, antolatzailerak azaldu dute zazpi ordenagailu daudela KZgunean, eta, beraz, zazpi pertsonakoa dela edukiera-muga. Apirilaren 8tik 12ra bitartean eman daitezke izena liburutegian bertan.



IDOIA ARANBARRI

Korrika Txikian, euskara ardatz

23. Korrika igaro berri da, eta Antzuolako gazteek ere bat egin dute egitasmoarekin, Antzuola Herri Eskolak antolatuta Korrika Txikia egin baitzuten pasa den egubakoitzean, martxoaren 22an. 3 urtetik hasi eta seigarren mailara arteko ikasleek hartu zuten parte herri osoan lasterka eginez. Euskararen aldeko pankartak eta mezuak prestatu zituzten.

Bost jaitsierako enduro martxa; tartean, berri bat

Enduro-zaleen topaleku izango da Elgeta apirilaren 6an. Piñu-koku taldeko kideek buru-belarri dihardute IV. enduro martxa prestatzen. 28 kilometro eta 1.300 metroko desnibela izango ditu; horien artean, isilpean duten jaitsiera berria

Larraitz Zeberio Lekuona ELGETA

Goikomendi, Azkonabieta eta Intxorta zapalduko ditu aurten enduro martxak. "Iaz ez bezala, aurten Goikomendin hasiko gara, eta azkenerako utzi dugu Intxorta", azaldu du Piñu-koku taldeko Etor Garatek. "Elkartzeko gunea gaztetxe azpiko lautada izango da eta anoa-puntua Karabieta eta Azkonabieta artean egongo da, ez plazan". Garatek azaldu duenez, aurten ez da mekanikako gunerik egongo, CDRko lagunak denbora gutxiagorekin dabiltzalako. Urtero moduan, hori bai, bizikletak garbitzeko mangerak zein pilotuendako dutzak egongo dira, eta Gazte Asanbladak bere ekarpena egingo du: *kañeroa* eta musika jarriko dute.

Bost jaitsiera

Bost jaitsiera izango ditu aurten enduro martxak. "Goikomendiko jaitsiera ezaguna da, baina zati berriak gehitu dizkiogu. Gero, beti bezala, Azkonabieta aldera egingo dugu. Ez dugu jaitsiera osorik egingo; izan ere, aurtengo nobedade nagusia den hirugarren jaitsierara egingo dugu handik". Hainbat aste dira Piñu-kokuko lagunak buru-belarri lanean ari direla: "Lan handia egin dugu; batez ere,



Piñu-koku enduro martxa, iaz, Asentzio parean. IMANOL SORIANO

MARTXAREN OSTEAN, TXITXI-BURRUNTZIA ETA ANIMATZEN DIREN PILOTUEN PUMPTRACK SAIOAK

jaitsiera berrian. Pista egoera onenean egotea nahi dugu, eta horregatik ez dugu egunera arte zein den zabaldu nahi".

Laugarren jaitsiera Mendigainatik Aixolarainokoa izango da. "Gero, presatik herrira igoko


gara, eta gogoz jarraitzen dutenek aukera izango dute Intxortara igo eta azken jaitsiera egiteko. Betiko moduan, zirkuitu bakarra izango dugu, baina laburtzeko aukera bat baino gehiago izango ditugu".

Izen-ematea zabalik da

Kirolprobak.com atarian zabalik da dagoeneko izen-ematea. Iaz 120 lagun elkartu ziren. "Inskripzioak motel doaz, baina horrela izaten da. Jendea, nire ustez, eguraldi iragarpenaren zain dago", azaldu du Garatek.

Lan handia pistak prestatzen

Bideak egoera onenean egotea nahi dute Piñu-koku taldeko kideek, eta horretarako ari dira lanean. Asteotan basoan ari dira buru-belarri. "Gogotsu gaude, eta beti bezain ona edo hobea izango da aurtengo edizioa. Ea eguraldiak pixka bat laguntzen digun", azaldu dute. "Urtero etorri izan da jendea. Aurten ere betikoak edo hortik gora elkartzea espero dugu".



Piñu-koku taldeko kideak enduro martxa prestatzen. PIÑU-KOKU

Badator frontenis txapelketa ere, eta zabalik da izen-ematea

Apirilaren 12tik 21era bitartean jokatu da, eta datorren barikuan itxiko dute izen-emate epea

Larraitz Zeberio Lekuona ELGETA

Hamasei bikotek jokatu zuten Elgetako frontenis txapelketa iaz, eta erdia izan ziren elgetarrak. Aurten, antzerako kopurua izatea espero dute helburu antolatzaileek. Jakinarazi dute bi aste bukaeratan jokatu dela txapelketa: apirilaren 12tik 14ra eta 19tik 20ra.

Iazko txapelketan Maitena Mañarikua eta Mireia Rubio nagusitu ziren emakumezkoetan eta Unai Hernaltes eta Gontzal Azkarraga-urizar gizonezkoetan. Aurtengo txapelketari dagokio-

nez, oraingoz, bi bikotek eman dute izena. Interesatuak *fronteniselgeta@gmail.com* helbide elektronikora idatzi behar dute. Prezioa 15 euro da bikoteko.

Bazkaria ere bai

Finala apirilaren 21ean izango da, eta bazkaria ere egingo dute. "Txapelketan izena emateko azken eguna apirilaren 5a da. Bazkaria Ozkarbi elkartearen egingo dugu, eta beharrezkoa da aurrez izena ematea", azaldu du antolakuntza taldeko kide Iratxe Bravok.



BEHEKO KALEKO JAI BATZORDEA

Udaberriko bingoa, jendetsua

Harrera ona izan ohi dute Beheko kaleko jai batzordeak antolatzen dituen bingo saioek, eta jende kopuru polita elkartu zen barikuan ere. Adin nahasketa ere interesgarria izan zen. Emoziorik ez zen falta izan, eta pozik itzuli ziren etxera, bereziki, *linea* eta *bingoa* kantatu zutenek. "Mila esker bingoa etorri zineten guztioi!", esan dute batzordekoek.

OHARRAK

Gipuzkoako hiru txirlo bola txapelketa

Txapelketako hirugarren tiraldia jokatu da apirilaren 6an, 23:00etan, bolatokian. Nahi duen orok har dezake parte.

Bisita gidatuak Intxortako lubakietara

Egunotarako hiru bisita gidatu daude antolatuta: hilak 29, 30 eta apirilak 7. Izena emateko, *infoturismo@debagoiena.eus* edo 943-79 64 63.

Sevillara bidaia Intxortako Lehoiekin

Apirilaren 6an Sevillan jokatzekoa den Errege Kopako finala ikusteko irteera antolatu dute Intxortako Lehoiek. Edozein argibidetarako: *intxortakolehoiak@hotmail.com*.

Hogeita hiru urtez naturaren alde lanean

2001ean ekindako bideari joan den martxoan eman zion amaiera Aloñako Lagunak taldeak. Bide horretan, mila zehaztuz baina gehiago landatu dituzte; orain, leku faltaren ondorioz, gelditzeko unea iritsi zaie. Mantentze-lanak egingo dituzte aurrerantzean

Iñigo Barrena Kortabarria OÑATI

Hogeita hiru urte pasatu dira Aloñako Lagunak taldeak Oñatin lehen zehaztuz landaketa egin zuenetik, eta, martxoaren 10ean Aloña Mendi Kirol Elkartearen 75. urteurreneko ospakizunen barruan egin zuten azkena. Unaimendi inguruetan landatu zituzten azken zehaztuz; hamalau izan ziren, guztira, Aloña Mendik dituen sail bakoitzeko bat. Bi hamarkada hauetan, berriz, mila zehaztuz gora landatu dituzte. "Landatutako zehaztuz guztien %60 bizi direla esan ziguten Natur Eskolatik. Normalean, lizarra edo basoko hatsa landatu izan ditugu eta Duru inguruetan eta Eskistan aritu gara", adierazi du Inazio Irizarrek, Aloñako Lagunak taldeko kidea. Azken landaketa bukatuta, Aloñako tontorrean igo ziren eta han elkarrean bandera bat jarri zuten.

Aloñako gurutzera, mugarr

Hain zuzen, Aloñako tontorrean hasi zen Aloñako Lagunak taldearen bidea. 2001. urtean, gurutzearen 100. urteurrena bete zen, eta, Fernando Maiztegi buru zela, gurutzearan hainbat zaharberri-lerro egin zituzten. Horrez gain, gurutzearan alboan dagoen atzerpean ere berri-lerro egin zituzten, eta orduan iritsi zen Aloñako Lagunak taldearen lehen zehaztuz landaketa; izan ere, atzerpearen aurrean sei zehaztuz landatu zituzten.

Ordutik, urteroko hitzordu bilakatu da taldearentzat. "Taldearen oinarrian betiko kidea gaude; hau da, nukleoa berbera izan da urte hauetan guztietan. Dena dela, urtero jendea batzen joan zaigu zehaztuz landaketara" dio Irizarrek. Halaber, egindako landaketa horiek guztiek taldeari "poztasun txiki bat" besterik ez diotela eman aitortu du Aloñako Lagunak taldeko kidea, eta eu-



Aloñako Lagunak, iaz egindako zehaztuz landaketan. OIHANA ELORZA

ren helburua beti naturaren alde "lan egitea" izan dela gaineratu du.

Fernando Maiztegiren lana

Natur Eskolarekin batera lan egin arren, Fernando Maiztegiren garrantzia azpimarratu gura izan du Inazio Irizarrek: "Hura ibiltzen zen Aloñako gurutzearan mantentze-lanak egingen 2001ean joan aurretik, eta harekin ekin genion geuk ere hogeita hiru urteko bideari. Hari laguntzera joateko elkarrekin ginen lehen aldian. Mendia begiz jota du, eta urte hauetan guztietan egin ditugun zehaztuz landaketetarako materialaren zati bat, aitzurra eta bestelakoak, haren tailerretik ekarri izan dizkigu". Gainera, ibilbide honetan, landaketak iragartzen zituztenean, Maiztegik Patruze kalean duen tailerrean eman behar zen izena.

HOGETA HIRU URTEKO IBILBIDEAN, MILA ZEHAZTUZ BAINO GEHIAGO LANDATU DITUZTE

Gelditzeko arrazoia, leku falta

Martxoaren 10ean esan zioten agur hogeita hiru urteko ibilbideari, baina ez jarraitzeko gogo falta dagoelako, zehaztuz landatzeko leku gehiagorik ez dagoelako baizik. Beti bezala, Natur Eskolarekin batera eraman dituzte aurrera zehaztuz landaketak, eta "oso eskertuta" daudela adierazi du Irizarrek; izan ere, euren laguntza barik landaketak ezingo lituzketela "aurrera eraman" azpimarratu du.

Gainera, gelditzeak "penarik ez" diola ematen ere aitortu du, aurrerantzean bestelako lan batzuetan jarraituko dutelako: "Lekurik egon ezean, ezin ditugu zehaztuz gehiago landatu, baina aurrerantzean, Natur Eskolakoek esaten digutenaren arabera, mantentze-lanak egitera joan beharko dugu zehaztuz dauden tokietara; beraz, Aloñako Lagunak taldearen nukleoa jarraitu egingo du". Horrez gain, 2026an Aloñako gurutzearak 125 urte egingo dituela ere gogoratu du, eta, agian, urtemuga horren baitan, han zerbait egiteko asmoa ere azaldu du Irizarrek, baina oraindik ezer ez dela zehazta adierazi du.

lazko gerakinetik lau milioi euro pasa dituzte aurrekontura

Pasa den egunean egindako martxo osoko bilkuran onartu zuten udalbatzak, oposizioaren abstentzioarekin

I.B.K. OÑATI

Joan den egunean egindako osoko martxo osoko bilkuran, joan den urteko gerakina aurrerantzean aurrekontura sartzea onartu du Oñatiko udalbatzak. Lau bat milioi euro guztira: 1,6 milioi txertaketa bidez eta 2,4 milioi kreditu aldaketa bidez. 2023an martxoan jarritako proiektuak dira horietako batzuk eta horiez gain, gehitu dituzten partidak dira: kantxa urdineko teiltatuko ur sarrerak konponitzeko, led argiteria jartzeko kantxa urdinean eta pilotalekuan, eta eguzki plakak jarriko dituzte kiroldegian argindar auto-kontsumoa bultzatzeko. Horrez gain, Eltzian igogailu bat jarriko dute eta hurrengo urteko maileguaren zati bat ere ordainduko dute. 2,3 milioi euro geldituko lirakeke, gordeta daudenak, Urrutxuko zilegitze lanetarako.

Udalean oposizioan dagoen alderdi jeltzalea ados agertu zen udal gobernuak aipatutako asmo horiekin, baina aipatu zuten horrek txikiagotu egiten duela urte hasieran Udalak zuten aurrezki arrunta. Beraiek egindako proposamenak ere, Kasablankan eta San Martin egoitzako loreontzietan loreak jartzearena, ez zuten onartu Udala Gobernuak, egoitzaren kasuan Kabiarena dela argudiatuz; alderdi bien artean eztabaida sortu zuen Oñati eta Elorregi arteko autobus zerbitzua jartzearena ez zen onartu. Alderdi biek ikusten dute horren beharra, zerbitzu hori jartzeko eskumenean dago, baina, bien arteko desadostasuna: Udalarena dela azpimarratzen du EAJk eta azterketa bat egitea proposatzen du; aldundiarena dela dio EH Bilduk eta ez du azterketa beharrik ikusten.

Ordutegi aldaketak udal zerbitzuetan Aste Santurako

Aste Santuko egunetan udal zerbitzuek ordutegi aldaketak izango dituzte. Esaterako, kiroldegia itxita egongo da egunean, egubakoitzean eta astelehenean; gainontzeko egunetan ordutegi bera mantenduko du. Haz Bulegoari eta Udala Liburutegiari dagokienez, berriz, egunetik astelehenera arte, bi egunak barne, itxita egongo dira.

Arantzazura, Araotzera eta Arrikutzera igotzeko autobusak ere zerbitzua emango du martxoaren 28an, 29an eta 30ean eta apirilaren 1ean; azken horretan, berriz, udako ordutegia sartuko da indarrean, eta, beraz, Arantzazutik jaisteko azken autobusa arratsaldeko zazpitan izango da. Aste Santuan Araotzera edota Arrikutzera joateko, aurrez eskatu behar da geldialdia, Jaturaben. Martxoaren 30ean, herribusak 09:00etatik 14:00ak arte emango du zerbitzua.

Berriz abiatuko dute Araotzeko ostatuaren esleipen prozesua

Udalak abenduaren 21etik otsailaren 29ra izan zuten irekita Araotzeko tabernaren, jatetxearen eta lau apartamentu turistikoaren ustiapenerako emakidarako eskaintzak jasotzeko epea. Denbora hori igarota, ez da eskaintzarik jaso. Orain, oinarriak egokitu eta beste esleipen prozesu bat abiatuko dute, oso bilkuran onartua izan zena.

Txantxiku Ikastolako ikasleek Osasun Astea izango dute

Batxilergoko bigarren mailako ikasleak, lehen urte martxoan jarri duten Jarduera Aisia eta Osasuna ikasgaiaren bitartez, Osasun Astea ari dira antolatzen apirilako. Lehenik, apirilaren 12an, osasunaren gaineko hitzaldia izango dute. Bestetik, ekintza solidarioak egingo dituzte, baita ikastolan bertan osasunari lotutako hainbat jarduerak ere.



Zentzu Okerra taldea, gaztetxean egindako grabaketan. BEÑAT ELORZA

Estiloz zabalena da bosgarren 'Oñati Vizirik'

Hemezortzi talde eta bakarlarik parte hartu dute estiloz pluralena den bosgarren diskoan. Hain zuzen ere, apirilaren 6an aurkeztuko dute diskoa, gaztetxean. Gainera, bi mahai inguru eta hiru kontzertuko bira bat antolatu dituzte

Iñigo Barrena Kortabarria OÑATI

Duela hemezortzi urte kalera zuten Oñati Bizirik ekimenaren lehen diskoa. Orain, Kasablankako gaztete zaharrean Oñatiko Gazte Asanbladak abiatutako ekimenak bosgarren lan bat izango du, *Oñati Vizirik* izenburupean. Hemezortzi musikari eta bakarlarik gorputzu dute lan berria, eta aurkezpena datorren apirilaren 6an izango da, Antixena gaztetxean.

Helburu nagusia, beti bezala, herriko musikariei talde izaera ematea da. "Herrian musika talde asko sortzen ziren, baina epe motzean utzi egiten zuten. Hori dela-eta hasi ziren ekimen horrekin, herriko musikariek egindako lana etorkizunerako geratu zedin. Horrek, gainera, bide ematen die talde izaera bat hartzeko", dio Mikel Garaiak, Oñati Bizirik ekimeneko antolatzaileetako batek. Lehenengo diskoak zuzeneko emanaldi batetik grabatu zituzten; hiruga-

rrenetik aurrera, berriz, gaztetxean ekoiztutakoak izan dira guztiak, baina autogestionatuak izan dira.

Askotarikoa

Hemezortzi urte hauetan asko aldatu da musikaren panorama Oñatin zein Euskal Herrian, eta horren adibide garbia dira ekimenaren bost lanak. "Lehenengo bi diskoetan, soilik punk doinuak entzuten ziren. Hirugarrenean hasi ziren bakarlariek sartzen, baina trikitia sartu zenean nabaritu zen gehien aldatuta hori. Aurten, gainera, elektronika ere sartu dugu bertan", adierazi du Garaik. Diskoa hemezortzi abestik osatuko dute –orain arteko gutxien–; aldiz,

IGORREKO ETA IRUÑEKO KONTZERTUETARAKO AUTOBUSAK ANTOLATUKO DITUZTE

inoiz baino talde eta estilo gehiago batuko ditu bosgarren lanak.

Aurkezpena, apirilaren 6an

Diskoa apirilaren 6an aurkeztuko dute, gaztetxean, egun osoko egitarauarekin; tartean, bazkaria eta kontzertuak. Ekimenaren baitan, ordea, beste ekintza batzuk ere antolatu dituzte: apirilaren 10erako eta 17rako bi mahai inguru, eta, horrez gain, hiru kontzertuko bira bat: Igorren maiatzaren 4an, Arrasaten maiatzaren 18an eta Iruñean ekainaren 1ean. "Bira ez da soilik kontzertuak jotzeko; taldeen arteko harremana sendotzeko balio du, eta musikariek egiten duten lana ezagutzeko", dio Garaik.

Diskoa eta *merchandising*-a salgai egongo dira diskoaren aurkezpen egunean eta gainontzeko ekitaldietan. Horrez gain, plataforma digitaletara ere igoko dute disko berria, eta baita aurreko laurak ere, orain arte egin ez duten moduan.

NIRE USTEZ

ITZIAR ALONSO AGIRRE

Herri baten taupadak

Martxoaren 14az geroztik, Ikurrina zintzilik daraman lekukoa eskuz esku igaro da zazpi euskal lurraldeetan zehar. Ekimen pribatu bat izanik haren sortzaile, ukazina da ongizate publikoaren aldeko apustua eta herri oso bat batzeko duen gaitasuna.

Gogoan ditut umetatik Korrika Oñatitik igarotzen zen momentu haiek, baita eskolan *egun handia* baino lehen egiten genituen lanketak; abestia behin eta berriz jarri, beste urte batzuetako kantak entzun, petoak margotu eta euskararen egoeraz hitz egin. Finean, nazio izaerari buruz jarduten genuen. Euskara gure bizkarrezurra delako; gure nazioaren bizkarrezurra.

Sarri, euskarari altxor izaera ematen diogu. Nire iritziz, aldiz, erakusleho batean dagoen harribitxizat hartu beharrean, aberasgarriagoa litzateke denon ahotan dagoen, erabileraren ondorioz aldatu egiten den eta gure beharren arabera moldatzen den tresnatzat izatea. Hura ikastea garrantzitsua baldin bada ere, are garrantzitsuagoa delako euskara erabiltzea.

Hazie Arrosa taldeak girotuko du hurrengo 'matinee' kontzertua

Apirilaren 7an izango da gaztelekuan egiten diren *matinee* kontzertuen denboraldiko hurrengoa, 12:30ean; oraingoan, Haize Arrosa taldea igoko da eszenatoki gainera. 2022. urtean Berrizen sortutako boskotea da, baina aurretik ere –batez ere, 90eko hamarkadan– Ene Bada taldean aritutako kideek osatzen dute taldea. Taldearen musika koloreak askotarikoak eta pluralak dira, eta, gainera, ongi hausnartutako erritmoak lantzen dituzte. 2023an, *Ez dogu zor eze* diskoa kaleratu zuten. Kontzerturako sarrerak martxoaren 9a ezkerro salgai daude Txokolatexan eta Oñatiko Udaltzainguan webgunean, 6 euroren truke.

Faxismoaren Aurkako Eguna antolatu dute apirilaren 13rako

Euskal gazteria antifaxista aurrera lelopean, hainbat ekintzaz osatutako egitaraua antolatu dute apirilaren 11rako eta 13rako. Lehen egunean, borroka antifaxistaren gaineko hitzaldia egingo dute June Iartzak eta Iker Izagirrek Antixena gaztetxean, 18:00etan. Ondoren, pintxo-potea egongo da, eta, bien bitartean, Iraitz, Hans eta Aitor hirukoteak kontzertu akustikoa egingo du. Zaturako, berriz, apirilak 13, arratsalde osorako egitaraua antolatu dute: Maddi Arlanzonon kontzertu akustikoa Arrano tabernan, ondoren triki-potea, eta gauean kontzertuak gaztelekuan. Sarrerak: aurrez, 7 euro; egunean bertan, 12.

Kirol hitzordu ugari izango dira gaztetxoentzat

Aloña Mendiko futbol sailak futbol campusa antolatu du apirilaren 2tik 5era bitartean. Guztira, 2013an, 2014an eta 2015ean jaiotako 100 gaztek eman dute izena aurtengo campusean. Goizean izango da, 09:00etatik 13:00etara, eta, Azkoagainen futboleko jokatzeko gain, beste-lako ekintzak ere egingo dituzte herriko hainbat txokotan.

Eskubaloian, kadete mailako emakumezkoen eta gizonezkoen taldeak eta gazte mailako emakumezkoen taldeak Gandian (Valentzia) jokatu den txapelketa batean parte hartuko dute, Euskal Herriko zein Espainiako taldeen aurka.

Igeriketa saileko gazteek ere urteroko egonaldi berezia egingo dute, datorren apirilaren letik 7ra. Aurten, Benidormera (Valentzia) joango dira, entrenamendu saio bereziak egin eta Aste Santua igarotzera.



Euskal Bizikleta Suñatik pasa zeneko irudia, 2006an; Koldo Gilek erakustaldia egin zuen gero Gatzagan. X.U.

"Debagoieneko maldek erabaki dezakete Itzulia"

ZIKLISMOA Euskal Herriko Itzulia birritan pasako da Debagoienetik. Laugarren etapa erabakigarria izan daitekeela diote adituek. "Kontuz Oletako, Untzillako eta Gatzagako maldekin, aproposak dira Vingegaard-ek kolpea jotzeko", dio Andoni Urbistondok

Xabier Urtzelai ARRASATE

Egungo txirrindularitzan pronostikoak egitea geroago eta zailagoa da, belaunaldi gazteak edozertarako gai direla erakusten dabilta eta. Goienan txirrindularitzaz idazten duen Andoni Urbistondok, baina, apirilaren 1ean hasiko duten Itzulira begira Debagoiengan jokatuko dituzten kilometroetan jarri du arreta. "Adi laugarren etaparekin, zuenean lehiatuko dituzten kilometroetan egon daiteke-eta Itzuliko gako", dio kolaboratzaile urnietarrak. "Vingegaardek eta Pogacarrek lehia izugarria dute: batek O Camiñon erakustaldia egiten badu, besteak Kataluniako Volta aise irabazten du. Hala, Itzulira Vingegaard beste horrenbeste egitera etorriko da, lasterketa ahalik eta azkarren erabakita uztera".

Ibarrekoak amaiera gogorra

Hori horrela, Urbixen ustez, Etxarri Aranatzan hasi eta Legutión amaituko duten laugarren

etapak zeresan handia izan dezake lasterketan. "Suñako maldek Krabelingoak [azken etapa] besteko erabakigarriak izan daitezke, ez gutxiago. Izan kontu Debagoienetik pasako den etapan ziklistek oso tarte laburrean malda gogorak izango dituztela. Oletako [16:20] maldak lehenengo, ondoren Kruzeta jaitsi eta segituan izango dute Untzilla [16:40]... Bi kilometroko igoera da, baina pendiz handikoak, eta Visma-Lease moduko talde batek nahi badu tropela lehertu dezake han, eta ez ahaz-

"LAUGARREN ETAPA EGOKIA DA VINGEGAARDEK ERASOA JO DEZAN, ETA ITZULIA ERABAKI"



ANDONI URBISTONDO
KAZETARIA

tu oraindik Leintz Gatzagako [17:05] maldak geratzen direla. Etapa amaiera hori oso aproposa da Vingegaard moduko ziklista batendako, eta handik Legutiora dauden kilometroetan hegan egin dezake. Ondo bada, sailkapen orokorrera begira alde polita lor dezake; horregatik diot adi ibiltzeko etapa horrekin".

Seigarrena, Bergaratik

Esan moduan, laugarren etapak 40 kilometro egingo ditu Debagoiengan, eta seigarren etapa –apirilak 6– ostera bueltatuko da ibarrera. Ohi moduan, azken etapa menditsua izango da –Eibar-Eibar–, tranpaz beteta dagoena. Ziklistek Azurki, Gorka –Elosutik–, Krabelin, Trabakua, Izua eta Urkaregi igoko dituzte. Gorkako ginetik 15:10 inguruan pasako dira, eta 8 minutu geroago zeharkatuko dituzte Bergarako kaleak; Mekolaldetik Sorluzeko bidea hartuko dute gero.

Goñiren omenezko finala jokatuko du Ander Muruak gaur

PILOTA Arrasatearrak Bernaolarekin osatuko du bikotea; Igoa eta Garmendia izango dituzte aurrean, Zumarragan

X.U. ARRASATE

Gaur, martxoak 27, jokatuko dituzte Zumarragan (18:30, Beloki pilotalekua) Goñiren omenezko txapelketako finalak, eta elite mailako bikotetako norgehiagokan Arrasateko Ander Muruak eta Bernaolak Igoa eta Garmendia izango dituzte aurrean. Hala, iazko finalean Ugartemendiarekin batera 22-9 galdu ostean, Ander Muruak arantza ateratzeko aukera ezin hobe izango du. Finalerdietan partidu ikusgarriak jokatu ostean iritsi dira norgehiagoka erabakigarria.

lazko arantza kentzera

Muruaren eta Bernaolaren kasuan, finalerdiak erakargarritasun handia zuen, torneoan –orain arte– maila onena erakutsi duten bi aurrelari aurrez aurre ikusteko gogoz zeudelako pilotazaleak: Ander Murua eta Eñaut Lizeaga. Lizeagak tanto ikusgarriak egin zituen aurrean, baina Muruak esperientziatik egin zuen tira, eta beheko jokoa bilatuz min egin zion Lizeagari. Gainera, Bernaolak apenas egin zuen akatsik, eta 22-18 irabazita sailkatu ziren finalerako. Sarre-ra 10 euro da.



Pilotari arrasatearra, finalerdietan. GOÑI

Emakumezkoen errugbi taldeak 30 urte betetzen ditu aurten

ERRUGBIA Klubak maiatzaren 18an ospatuko du urteurrena; taldeko beteranoak batzeko lanean dabilta

Xabier Urtzelai ARRASATE

Arrasate Errugbi Taldeak emakumezkoen sailaren sorreraren 30. urteurrena ospatuko du maiatzaren 18an. Arrasatearrek 1993-1994ko denboraldian jokatu zuten lehenengo partidu ofiziala, baina taldearen sorreraren berri izateko bi urte egin behar dira atzera: 1991-1992ko ikasturtean hamabost neskaz osatutako taldea errugbia praktikatzen hasi zen Garagartzako zelaian. Esan moduan, bi urte geroago era ofizialean taldea sortu eta partidu ofizialean lehiatzen hasi ziren.

Hiru garai ezberdin

ARTko emakumezkoen saila hiru garai ezberdinetan lehiatu da. Hasierako proiektu hark 1994-1995eko denboraldira arte iraun zuen. Hainbat urtetako etenaldiaren etorri zen gero, eta 2007an emakumezkoen taldea birsortu zuten ostera, eta beste hiru denboralditan jardun zuten –2009-2010ekoa izan zen azkena–. Bigarren garai hartan Durango Rugby Taldeko neskak izan zituzten bidelagun. Eta azken etapa gaur egungoa da, pandemia garaian –2020– martxan jarri zutena.

Hau da hau
desastria egin dotena.
Oin, baten batek konpondu
biherko dost hau.



DESKARGATU
Play Store-n

DESKARGATU
APP Store-n

goienaOkmgida

Debagoiengan baldin badago,
hemen dago.



Goiena
Okmgidaren
eskaintza osoa.



Suediako The Baboon Show taldea 2022ko Mondra&Roll jaialdian. IMANOL SORIANO

Beteranoen oholtzan, gazteen indarra ere bai

Uztailaren 5ean eta 6an egingo dute hirugarren Mondra&Roll jaialdia Monterron parkean, nazioarteko eta Euskal Herriko hamalau talde gonbidatuta; horien artean, Debagoienekoak. Sare sozialetan eta 'Musikaze.net' atarian daude sarrerak salgai

Aitziber Aranburuzabala Juldain

ARRASATE

Esperientzia "lagungarria izanda" punk, oi eta hardcore eszenako Arrasateko jaialdiko bultzatzaileendako –Mauka musikagintza, Jimmy Jazz aretoa eta HFMN Crew, Arrasateko Udaren babesarekin– hirugarrenari forma emateko, nahiz eta "zailtasunak" izan dituzten kartela osatzeko. "Azpiegitura aldetik errazagoa egin zaigu, baina, bestetik, egia da zalantza asko sortu zaizkigula kartelarekin. Ate asko jo ditugu, eta pozik gaude alde horretatik. Iaz moduan, Monterron parkea izango da erdigunea eta Arruena parkean izango da akanpa-

lekua", dio Jimmy Jazz aretoko Iker Arronizek.

Egubakoitzean, Sham 69

Bi egunetan banatuta, hamalau talde izango dira. "Lehenengora ekarri nahi genuen Sham 69 talde beteteranoa gurean izango da; talde originaleko Jimmy Pursey, Dave Parsons eta Dave Tregunna kideak bertan izango dira, eta baita 80ko hamarkadan hasita musikagintzan jarraitzen duen Roy Ellis jamaikarra eta haren banda ere. Publiko gaztea erakartzea da dugun helburuetako bat, eta asmo horrekin osatu dugu egubakoitzeko kartela, bogan dauden euskal talde gazteak gonbidatuta".

Bigarrenez jaialdian

Stiff Little Fingers, Suicidal Tendencies, Pennywise eta Toy Dolls taldeak "ukitu" dituztela gaineratu du Arronizek: "Astetik as tera aldatzen joan da zerrenda. Aspalditik dugu Stiff Little Fingers ekartzeko gogoia, baina, aurrekontua eta beste eskaera batzuk tarteko, ez da posible izan, eta ezta buruan genituen beste hainbat ekartzea ere. Hala ere, bidean apustu politekin egin dugu topo; horien artean, The Baboon Show eta Cock Sparrer taldeak bigarrenez gonbidatu ditugu. Hasiera baten, ez genuen taldeak errepikatu gura, baina oso gertukoak ditugu biak ala biak eta oso maitatuak dira Euskal Herrian;

hala, disko berri bana argitaratu izanak bultzatu gaitu euren atea berriz jotzera. Zaturako apustua, bereziki, hiru talde gazte indartsu britainiarrekin borobildu dugu".

Sarrerak salgai daude

Mondra&Rollen sare sozialetan eta *Musikaze.net* atarian daude sarrerak salgai. "Bi egunerako bonua 72,50 euro da eta datorren astean Arrasateko Taupa tabernan ere eskuragarri izango da. Egunetako sarrerak online bakarrik eskuratu ahal dira: egubakoitzekoa 35 eurotan eta zapatukoa 45 eurotan. Ondo doa aurrezalmenta; bereziki, zapatukoa".

Kontzertuak

Egubakoitza

- **Sham 69** Erresuma Batua.
- **Madball** Ameriketako Estatu Batuak.
- **Roy Ellis** Jamaika.
- **Brigade Loco** Euskal Herria.
- **Kaleko Urdangak** Euskal Herria.
- **Larru Beltzak** Euskal Herria.
- **Arene 6** Euskal Herria.

Zapatua

- **Cock Sparrer** Erresuma Batua.
- **The Baboon Show** Suedia.
- **High Vis** Erresuma Batua.
- **The Chisel** Erresuma Batua.
- **Bad Nerves** Erresuma Batua.
- **Les Testarudes** Katalunia.
- **Kontralde** Euskal Herria.

Apirilaren 19ra arte 'Algaraka' lehiaketan parte hartzeko

Aukeratuak izan diren bakarrizketariak 'coach' bat izango dute gidotzat jotzeko

A. Aranburuzabala BERGARA

Maiatzeko lau egubakoitzetan izango dira Jardun Euskara Elkarteak eta Goiena Komunikazio Taldeak bestelako askotariko erakundeekin laguntzarekin antolatutako Algaraka Bakarrizketa Lehiaketako saioak. Hamabi lehiakide izango dira lehian eta dagoeneko zabalik dago parte hartzeko deialdia. Euskarazko lehiaketaren oinarriak eta bestelako informazio gehiago *Algara.eus* atarian daude eskuragarri; izena emateko aukera ere atarian dago, eta *Komunikazioa@algaraka.eus* helbidera idatzita ere egin daiteke.

Aretoetan eta pantailan

Publikoaren aurrean egingo dituzte saioak eta lau artista izango dira bakoitzean. Aretoez gainera, *Primeran* plataforman izango dira ondoren ikusgai. "Bakarrizketa bakoitza merezi duen tokian jarri nahi dugu, eta EITBekin dugun elkarlanak argiteria eta eszenografia hobetzen eta tresneria gehiago izaten ahalbidetuko digu, eta baita *coach*-a jartzen ere; bakarrizketariei gidotzat jotzeko eta bestelako aurre-lanetan laguntzeko figura izango da hura", diote antolatzaileek.

GOIENA
TELEBISTA
SASOI
BERRIA

DORLETA
ELKOROBARRUTIA

LEINTZ GATZAGAKO ALKATEA

'HARIRA' SAIOAN
MARTXOAREN 27AN, EGUAZTENA,
18:15EAN, 20:15EAN ETA 22:15EAN

DESKARGATU
GOIENA
APLIKAZIOA

goiena

Zu hemen zaude.



Azkaiter Pelox taldea osatzen duten sei musikariak. UNAI AZKARATE

Azkaiter Peloxen lan berriarekin hegan

'Batera hegan' izeneko lan berria argitaratu du Bergarako Azkaiter Pelox taldeak. Arrano tabernan dago diskoa salgai, eta maiatzaren 1etik aurrera plataforma digital guztietan egongo da eskuragarri. Aurkezpen kontzertuak ere iragarri dituzte

Gontzal Belategi Zubia BERGARA
Batera hegan izena daraman diskoa argitaratu du Bergarako Azkaiter Pelox taldeak. Diskoa eskuragarri dago jada Bergarako Arrano Tabernan, baina plataforma digitaletan eskuratu nahi duenak maiatzaren 1era arte itxaron beharko du.

Sei musikarik osatzen dute taldea: Shane Curley (gitarra akustikoa eta ahotsa), Aitzol Mujika (baxu elektrikoa eta soinu teknikaria), Bittor Giral (saxofoia eta txirula) John Prieto (biolina eta ahotsa), Aitor Aranburu (bateria eta perkusioa) eta Unai Azkarate (gitarra eta ahotsa). Hala ere, diskorako beste hiru musikariren laguntza ere izan dute; Gaizka Azkarate harmonika-jolea, Inazio Narbaitza zeharkako txirula-jolea eta Tristan Ibañez gitarrak-jolea.

2022 eta 2023 artean grabatu zuten diskoa Azkaiter Peloxeko taldekideek; Bergarako Labegaraletan dagoen Auryn estudioan grabatu dute lana. "Logistikoki

sekulako erraztasuna eman digu" adierazi zuten taldekideek. Unai Azkaratek esan duenez, denbora igaro da grabatu zutenetik argitaratu duten arte. Hainbat faktorek eragin dute hori, baina aipagarriena da diskoaren ekoizpenean murgilduta zeuden bitartean zuzenekoak eskaintzen jarraitu zutela, taldeek orokorrean ez dute-eta hori egiten.



AZKAITER PELOX, 'BATERA HEGAN'

- **Argitalpena:** 2024
- **Grabaketak:** 2022-23
- **Abestiak:** Zortzi
- **Estudioa:** Auryn

Harremanak hizpide

Harremanen inguruko letrak nabarmentzen dira diskoan. "*Batera hegan* izenak esaten duen moduan, elkartzearen aldeko eta batasunaren aldeko apustua da. Harremanei buruzko letrak daude. Ez dakit lehen aldian den, baina denborak eta esperientziak harremanak gozatzeko gogoia ematen digu", dio Unai Azkaratek. Zortzi kantuk osatzen dute diskoa. Jatorrizko kantuk, bertsioak eta bestelako omenaldiak uztarturik agertzen dira bertan; betiere, euren estilo propioarekin.

Aurkezpen bira

Disko berria aurkezteko, hainbat kontzertu iragarri dituzte. Apirilaren 20an izango da estreinako, Pello Garitanoren omenezko Gorlako igoeran. Hortik aurrera, maiatzaren 10ean Torrekuako jaietan, ekainaren 8an Arrasaten eta uztailaren 26an Boluko jaietan egingo dituzte kontzertuak.

Goienakideen txokoa

MARTXOKO SARIAK



Tableta

InnJoo Superb Plus tableta
Parte hartzeko sariaren izena: tablet



Sarrerak

Arrikruz kobak bisitatzeko, sarrerak.
Parte hartzeko sariaren izena: Arrikruz



Otarrea

Bidezko merkataritzako produktuak.
Parte hartzeko sariaren izena: Otarra



PARTE HARTZEKO:

Posta elektronikoz: goienakide@goiena.eus WhatsApp: GOIENAKIDE
"sariaren izena" (backkidearen zenbakia) 688 60-00 07 zenbakia

"goiena app"-a / zozketa atalean. Parte-hartzearen artean egingo da zozketa.
Inferior dagoen 150 15/1000 lagunen artean jaiarazteko digu: zure datu pertsonalik Goiena Foruakora Jaiarazteko Foruak ezarritako baldintzak bete behar dira. Datu bakoitzaren helburu bakarra da inforazioa zure datu pertsonalik Goiena Foruakora Jaiarazteko Foruak ezarritako baldintzak bete behar dira. Hark zozketak edo zozketak helburu bakarra da: goienakide@goiena.eus

Realaren eta Almeriaren arteko partidarako sarrerak futbol zelaiko tokirik onenean!



GOIENAKIDEENTZAKO ESKAINTZA

Real-Almeria norgehiagoka beste modu batera ikusteko aukera bikaina duzue eskura zuek eta zuek aukeratzeko beste lagun batek: Reale Arena futbol zelaiako premium gunetik. Reale Arena futbol zelaiko tokirik onenetik. Partida apirilaren 14-an izango da, 21:00etan. Parte hartzeko azken eguna: apirilaren 7a.



Puntu aldizkaria jasotzeko, zozketetan parte hartzeko eta txartel digitalaren abantailaz gozatzeko...



GOIENAKIDE KUOTA: 65€
Deitu: 943 25 05 05 • goienakide@goiena.eus



DESKARGATU GOIENA APLIKAZIOA

goiena"
kide

Okm: batzen gaituen distantzia

OROIGARRIA

Markos Larrañaga Elorza

2024ko martxoaren 25ean hil zen, 77 urte zituela.

*Gantzako haitzen azpian elkartuko gara.
Topa zugatik!*



Izpizte Elkarte.
Aramaion (Gantzaga), 2024ko martxoaren 27an.



OROIGARRIA



Julian Elorza Gorosabel


2024ko martxoaren 24an hil zen, 89 urte zituela.

*Zure jakin-minerako pasioak gugan utziko du arrastoa.
Bejondeizula, osaba.*

Zure lobak.
Arrasaten, 2024ko martxoaren 27an.



OROIGARRIA




Julian Elorza Gorosabel

2024ko martxoaren 24an hil zen, 89 urte zituela.

Etxeko maiorazkoa, matematiketan trebea maisu zorrotza, bizitzaren formulak hautsiz askori bidea ireki eta erakutsi diguna. Bihotz-bihotzez, milesker, Julian.

Zure anai-arreba koinatu-koinatak.
Arrasaten, 2024ko martxoaren 27an.



URTEURRENA

Jose Maria Iturbe Arana


2023ko apirilaren 4an hil zen, 58 urte zituela.

Urteurreneko meza domekan izango da, apirilaren 7an, 11:00etan, Arrasateko Uribarriko Itxaropen Andreaken elizan.

Elizkizunetara joango zaretenoi eskerrik asko, sendikoen izenean.
Arrasaten, 2024ko martxoaren 27an.



URTEURRENA




Eusebio Blazquez Serrano

2023ko martxoaren 31n hil zen, 79 urte zituela.

Begiak itxi eta zabaldu bihotza, han egongo naiz.

Etxekuak.
Arrasaten, 2024ko martxoaren 27an.



MEZA



Maxima Cortabarría Echezarreta

Domingo Biainen alarguna
2024ko martxoaren 6an hil zen, 88 urte zituela.

Maritxu Biain Urcelay

2024ko martxoaren 20an hil zen, 91 urte zituela.

Ondra-meza zapatuan izango da, apirilaren 6an, 19:30ean, Oñatiko Agustindarren elizan.

Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi, hiletara etorri eta gurekin egon zarien guztiei. Bihotz-bihotzez besarkada handi bana, familiareb izenean.

Oñatin, 2024ko martxoaren 27an.



ESKER ONA

Ana Delgado Salas


2024ko martxoaren 25ean zen, 78 urte zituela.

Gure bihotzetan betiko.


Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi eta gurekin zaudeten guztioi. Eta eskerrik asko Iturbide egoitzako langileei gure senideari eskainitako arreta eta maitasunagatik.

Bihotz-bihotzez besarkada handi bana, familiaren izenean.

Arrasaten, 2024ko martxoaren 27an.



ESKER ONA




Jose Mari Mujika Jauregi

Juanita Sarasketaren alarguna
2024ko martxoaren 25ean hil zen, 93 urte zituela.

Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi, hiletara etorri eta gurekin egon zareten guztioi. Bihotz-bihotzez besarkada handi bana, familiaren izenean.

Elgetan, 2024ko martxoaren 27an.



BABESLEA

Oroilore

Hileta zerbitzuak

Maitasunez bizi, maitasunez agurtu

Gure artean agurtutako guztiei eseren bidea azaritzen lagundu diegu, orain arte bezala, eta guztiek izango dute agur berezia Oroiloren.

Gure eskerrik beronenak gugan izan dituzten konfiantzagarri eta maitasunagatik.

Mario, Iban, Maribi eta Cristian

617 44 21 55
BERGARA • ANTZUOLA • Moyua OÑATI



ASTEA GOIENA TELEBISTAN



LEINTZ GATZAGAKO ALKATEA
Dorleta Elkorobarrutia Leintz Gatzagako alkatea elkarrizketatuko du Goiatz Aranek *Harira* saioan.
'Harira' Eguaztena, 18:15, 20:15 eta 22:15



ODEI ESNAOLA KAZETARIA
Amaia Uribe elkarrizketatu du kazetaria.
'Elkarrizketap'
Eguaztena, 19:30, 21:30 eta 23:30



GOIENA TELEBISTA NAHIERAN:
goiena.eus/telebista
Edo eskaneatu aldameneko qr kodea.

BERRI-ZAKUA



Domingo Guirao eta Ana Mari Guirao
Zorionak eta urte askotarako zuen ezkontzaren 63. urteurrenean! Familia guztia partetik!

AGENDA

EMAGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI EGUAZTENEN EGUERDIA BAINO LEHEN. Tel.: 943 25 05 05 / kultura@goiena.eus

EGUAZTENA 27

OÑATI 'Arantzazu santutegia' bisita gidatua

10:30ean eta 15:30ean euskaraz eta 12:30ean eta 17:00etan gazteleraz. Izena: 943-79 64 63 edo infoturismo@debagoiena.eus. Arantzazun.

BERGARA Bisita gidatua

Bergara monumentala, Lorategi historikoak eta Laboratorium museoa aukeran. Izena emateko: 943-76 90 03. Laboratoriumen, 11:30ean.

BERGARA Eguaztenetako azoka

Baserritarren garaiko produktuak erosteko aukera. Oxirondon, 18:00etan.

BERGARA 'Hotel Royal' filma

Jatorrizko bertsoan eta azpitu-tuluekin. Sarrerak, hiru euro. Seminarioxan, 20:00etan.

EGUENA 28

OÑATI 'Arantzazu santutegia' bisita gidatua

10:30ean eta 15:30ean euskaraz eta 12:30ean eta 17:00etan gazteleraz. Izena: 943-79 64 63 edo infoturismo@debagoiena.eus. Arantzazun.

ARRASATE 'Arrasate, hiribildu bizia' bisita gidatua

Herriko ondare historiko kulturala eta jatorri industrialia ezagutzeko. Izena emateko: 943-25 20 00 edo Arrasate.eus. 11:00etan euskaraz eta 12:15ean gazteleraz. Herriko Plazan.

BERGARA Bisita gidatua

Bergara monumentala, Lorategi historikoak eta Laboratorium museoa aukeran. Izena emateko: 943-76 90 03. Laboratoriumen, 11:30ean.

LEINTZ GATZAGA Bisita gidatua Gatz Museoa

12:00etan euskaraz eta 13:00etan gazteleraz. Izena emateko: 943-71 47 92 edo reservas@gatzmuseoa.com. Gatz Museoa, 12:00etan.

OÑATI 'Txokolatearen bidea' bisita gidatua

Kakaotik txokolaterako bidea ezagutzeko. Izenak: 605 76 35 95. Txokolateixan, 12:00etan.

OÑATI 'Oñatiko altxorrak' bisita gidatua

Unibertsitatea eta parrokia ezagutzeko. Izena: 943-78 34 53. Turismo Bulegoan, 13:00etan.

EGUBAKOITZA 29

OÑATI Aitzulora mendi ibilaldia

Gaztelekuko kuboko eta topalekuko erabiltzaileendako. Gaztelekuan, 10:00etan.

OÑATI 'Arantzazu santutegia' bisita gidatua

10:30ean eta 15:30ean euskaraz eta 12:30ean eta 17:00etan gazteleraz. Izena: 943-79 64 63 edo infoturismo@debagoiena.eus. Arantzazun.

ELGETA Bisita gidatua lubakietara

Izena emateko: infoturismo@debagoiena.eus edo 943-79 64 63. Mendizaleen plazan, 10:30ean.

ARRASATE 'Arrasate, hiribildu bizia' bisita gidatua

Herriko ondare historiko kulturala eta jatorri industrialia ezagutzeko. Izena emateko: 943-25 20 00 edo Arrasate.eus. 11:00etan euskaraz eta 12:15ean gazteleraz. Herriko Plazan.

BERGARA Bisita gidatua

Bergara monumentala, Lorategi historikoak eta Laboratorium museoa aukeran. Izena: 943-76 90 03 telefonoa. Laboratoriumen, 11:30ean.

OÑATI 'Txokolatearen bidea' bisita gidatua

Izena emateko: 605 76 35 95. Txokolateixan, 12:00etan.

LEINTZ GATZAGA Bisita gidatua Gatz Museoa

12:00etan euskaraz eta 13:00etan gazteleraz. Izena emateko: 943-71 47 92 telefonoa edo reservas@gatzmuseoa.com. Gatz Museoa.

OÑATI 'Oñatiko altxorrak' bisita gidatua

Sancti Spiritus unibertsitatea ezagutzeko aukera. Parrokiara ez dira joango gaur. Izena emateko: 943-78 34 53. Turismo Bulegoan, 13:00etan.

ZAPATUA 30

ESKORIATZA Futbarrio areto-futbol txapelketa

Taldeak zazpi jokalariz osatuta egongo dira, gutxienez. Manuel Muñoz kiroldegian, 08:30ean.

OÑATI 'Arantzazu santutegia' bisita gidatua

10:30ean eta 15:30ean euskaraz eta 12:30ean eta 17:00etan gazteleraz. Izena: 943-79 64 63 edo infoturismo@debagoiena.eus edo 943-79 64 63. Arantzazun.

OÑATI 'Gaztagintzaren sekretuak' bisita gidatua

Izena emateko: 943-78 28 94 edo 699 33 51 83. Parketxean, 10:30ean.

ELGETA Bisita gidatua lubakietara

Izena emateko: infoturismo@debagoiena.eus edo 943-79 64 63. Mendizaleen plazan, 10:30ean.

ARRASATE 'Arrasateko industria ondarea' bisita gidatua

Industrializazioak XX. mendean eragindakoaren adibide dira ibilbide honetan ezagutzeko diren hainbat eraikin eta istorio. Izena emateko: 943-25 20 00 edo Arrasate.eus. 11:00etan gazteleraz eta 12:15ean euskaraz. Herriko Plazan.

BERGARA Bisita gidatua

Bergara monumentala, Lorategi historikoak eta Laboratorium museoa aukeran. Bi ordutegi aukeran: 11:00 eta 12:30. Izena emateko: 943-76 90 03. Laboratoriumen.

OÑATI 'Txokolatearen bidea' bisita gidatua

Izena emateko: 605 76 35 95. Txokolateixan, 12:00etan.



GOIENA

OÑATI Espeleotxiki abentura

Arrikutzeko pasarelatik kanpo, kobazuloa bere egoera naturalean ezagutzeko. Familiendako eta 6 urtetik gorakoendako. Izena emateko: 943-08 20 00 edo arrikutz@onati.eus. Hilaren 30ean, Arrikutzen, 15:00etan.

LEINTZ GATZAGA Bisita gidatua Gatz Museoa

12:00etan euskaraz eta 13:00etan gazteleraz. Izena emateko: 943-71 47 92 telefonoa edo reservas@gatzmuseoa.com. Gatz Museoa.

OÑATI 'Oñatiko altxorrak' bisita gidatua

Sancti Spiritus unibertsitatea eta parrokia ezagutzeko aukera. Izena emateko: 943-78 34 53. Turismo Bulegoan, 13:00etan.

OÑATI Espeleotxiki abentura

Arrikutzeko pasarelatik kanpo, kobazuloa bere egoera naturalean ezagutzeko. Familiendako eta 6 urtetik gorakoendako. Izena emateko: 943-08 20 00 zenbakia edo arrikutz@onati.eus. Arrikutzen, 15:00etan.

DOMEKA 31

ARRASATE 'Arrasateko auzoak' ibilaldia

Familian egiteko, Arrasateko Meatzerreka, Udala eta Garagartza auzoak mendiz lotuko dira. 10,2 kilometroko ibilaldia izango da. Izena emateko: 943-25 20 00. Herriko Plazan, 09:00etan.

ELGETA Bisita gidatua lubakietara

Izena emateko: 943-79 64 63 edo turismo@debagoiena.eus. Memoria Historikoaren Euskal Interpretazio Zentroan, 10:00etan.

OÑATI 'Arantzazu santutegia' bisita gidatua

10:30ean eta 15:30ean euskaraz eta 12:30ean eta 17:00etan gazteleraz. Izena: 943-79 64 63 edo infoturismo@debagoiena.eus. Arantzazun.

BERGARA Bisita gidatua

Bergara monumentala, Lorategi historikoak eta Laboratorium museoa aukeran. Izena emateko: 943-76 90 03. Laboratoriumen, 11:30ean.

OÑATI 'Txokolatearen bidea' bisita gidatua

Kakaok egiten duen bidea ezagutzeko. Izena emateko: 605 76 35 95. Txokolateixan, 12:00etan.

LEINTZ GATZAGA Bisita gidatua Gatz Museoa

12:00etan euskaraz eta 13:00etan gazteleraz. Izena emateko: 943-71 47 92 telefonoa edo reservas@gatzmuseoa.com. Gatz Museoa.

OÑATI 'Oñatiko altxorrak' bisita gidatua

Sancti Spiritus unibertsitatea eta parrokia ezagutzeko aukera. Izena emateko: 943-78 34 53. Turismo Bulegoan, 13:00etan.

ARRASATE Familia Jolasean ekimena

0-8 urte arteko seme-alabak dituzten familiendako. Usaetxe Joludekan, 17:30ean.



GOIENA

ARETXABALETA Ekain Andresen omenezkoa

Gazte aretxabaletarren heriotzaren urteurrenean, kontzertua egingo dute Txerrikumeak, The Clayton, Kaparrak eta Etxepe taldeek eta Densok, Tattak eta Mutikok.

Apirilaren 6an, Arlutzeko kantxan, 18:00etan.

ASTELEHENA 1**OÑATI 'Arantzazu santutegia' bisita gidatua**

10:30ean eta 15:30ean euskaraz eta 12:30ean eta 17:00etan gazteleraz. Izena emateko: 943-79 64 63 edo infoturismo@debagoiena.eus. Arantzazun.

BERGARA Bisita gidatua

Bergara monumental, Lorategi historikoak eta Laboratorium museoa aukeran. Izena emateko: 943-76 90 03. *Laboratoriumen, 11:30ean.*

LEINTZ GATZAGA Bisita gidatua Gatz Museoa

12:00etan euskaraz eta 13:00etan gazteleraz. Izena: 943-71 47 92 edo reservas@gatzmuseoa.com. *Gatz Museoa.*

OÑATI 'Txokolatearen bidea' bisita gidatua

Izena emateko: 605 76 35 95. *Txokolateixan, 12:00etan.*

OÑATI 'Oñatiko altxorrak' bisita gidatua

Sancti Spiritus unibertsitatea eta parrokia ezagutzeko aukera. Izena emateko: 943-78 34 53. *Turismo Bulegoan, 13:00etan.*

ESKORIATZA Puzgarriak igerilekuan

17:00etan, 8 urtera artekoak nagusi batekin; eta 18:30ean, 9-12 urte

artekoak. Kirol Zerbitzuetako abonatuendako debalde, eta besteendako, hiru euro. Umeekin doazen nagusiek ez dute sarrera ordaintzen.

Kiroldegiko igerilekuan.

MARTITZENA 2**OÑATI Iruñera eta Gueñesera irteera**

DBH-1 eta DBH-2 mailetakoa Iruñera eta LH-3 eta LH-4 mailetakoa Gueñesera, hurrenez hurren. *Gaztelekuan, 10:00etan.*

OÑATI 'Arantzazu santutegia' bisita gidatua

10:30ean eta 15:30ean euskaraz eta 12:30ean eta 17:00etan gazteleraz. Izena: 943-79 64 63 edo infoturismo@debagoiena.eus. Arantzazun.

BERGARA Bisita gidatua

Bergara monumental, Lorategi historikoak eta Laboratorium museoa aukeran. Izena emateko: 943-76 90 03. *Laboratoriumen, 11:30ean.*

ESKORIATZA Puzgarriak igerilekuan

17:00etan, 8 urte artekoak nagusi batekin; 18:30ean, 9-12 urte artekoak. Kirol Zerbitzuetako abonatuak, debalde; besteak, hiru euro. Umeekin doazen nagusiek ez dute sarrera ordaintzen. *Kiroldegiko igerilekuan.*

EGUAZTENA 3**BERGARA 'Taula periodikoa' erakusketa**

Dimitri Ivanovichek sortutako taula ezagutzeko aukera, panelei eta jolas didaktikoei esker. Apirilaren 24ra arte.

Laboratoriumen, 10:00etan.

OÑATI 'Arantzazu santutegia' bisita gidatua

10:30ean eta 15:30ean euskaraz eta 12:30ean eta 17:00etan gazteleraz. Izena: 943-79 64 63 edo infoturismo@debagoiena.eus edo 943-79 64 63. Arantzazun.

BERGARA Bisita gidatua

Bergara monumental, Lorategi historikoak eta Laboratorium museoa aukeran. Izena emateko: 943-76 90 03. *Laboratoriumen, 11:30ean.*

BERGARA Eguaztenetako azoka

Garaiko produktuak erosteko. *Oxirondon, 18:00etan.*

BERGARA 'Das Lehrzimmer' pelikula

Jatorrizko bertsioan eta azpitituluekin. Sarrerak, hiru euro. *Seminarixoa, 20:00etan.*

EGUENA 4**OÑATI 'Paintball'-a eta ekintza Oñatin**

DBH-3 eta DBH-4 eta LH-5 eta LH-6koendako askotariko ekintzak. Besteak beste, *paintball*-a eta *salting*-a. *Gaztelekuan, 10:00etan.*

OÑATI 'Arantzazu santutegia' bisita gidatua

10:30ean eta 15:30ean euskaraz eta 12:30ean eta 17:00etan gazteleraz. Izena: 943-79 64 63 edo infoturismo@debagoiena.eus. Arantzazun.

BERGARA Bisita gidatua

Bergara monumental, Lorategi historikoak eta Laboratorium museoa aukeran. Izena emateko: 943-76 90 03. *Laboratoriumen, 11:30ean.*

EGUBAKOITZA 5**OÑATI 'Arantzazu santutegia' bisita gidatua**

10:30ean eta 15:30ean euskaraz eta 12:30ean eta 17:00etan gazteleraz. Izena: 943-79 64 63 edo infoturismo@debagoiena.eus. Arantzazun.

OÑATI Ginkana

Topalekuko kideendako. *Gaztelekuan, 11:00etan.*

ZAPATUA 6**OÑATI 'Arantzazu santutegia' bisita gidatua**

10:30ean eta 15:30ean euskaraz eta 12:30ean eta 17:00etan gazteleraz. Izena: 943-79 64 63 edo infoturismo@debagoiena.eus. Arantzazun.

OÑATI 'Oñati Vizirik' diskoaren aurkezpena

11:00etan, herriko artisauen azoka; 15:00etan, bazkaria; eta 19:00etan, kontzertua. Sarrerak, bost euro, eta diskoa opari. *Gaztetxean.*

BERGARA Bisita gidatua

Bergara monumental, Lorategi historikoak eta Laboratorium museoa aukeran. Bi ordutegi aukeran: 11:00 eta 12:30. Izena emateko: 943-76 90 03. *Laboratoriumen.*

LEINTZ GATZAGA Bisita gidatua Gatz Museoa

12:00etan euskaraz eta 13:00etan gazteleraz. Izena: 943-71 47 92 edo reservas@gatzmuseoa.com. *Gatz Museoa.*

BERGARA Euskadiko Ikasleen Orkestraren kontzertua

Iker Sanchezek zuzenduko du 15-19 urte arteko musikariak dituen orkestra. *Santa Marina parrokan, 12:30ean.*

ARETXABALETA Ekain Andresen omenezko jaialdia

Txerrikumeak, The Clayton, Kaparrak, Etxepe, Denso, Mutiko eta Tatta. *Arlutzeko kantxan, 18:00etan.*

BERGARA 'Euskalyptus' antzezlana

Lan harreman toxiko baten istorioa kontatzen du Jon Ander Urrestik. Urresti bera eta Beñat Urrutia dira aktoreak. Sarrerak, zortzi euro. *Seminarixoa, 20:00etan.*

ELGETA Gipuzkoako bola txapelketa

Hiru txirlo txapelketako jardunaldia egingo dute. *Bolatokian, 23:00etan.*

DOMEKA 7**OÑATI 'Arantzazu santutegia' bisita gidatua**

10:30ean eta 15:30ean euskaraz eta 12:30ean eta 17:00etan gazteleraz. Izena: 943-79 64 63 edo infoturismo@debagoiena.eus. Arantzazun.

BERGARA Bisita gidatua

Bergara monumental, Lorategi historikoak eta Laboratorium museoa aukeran. Bi ordutegi aukeran: 11:00 eta 12:30. Izena emateko: 943-76 90 03. *Laboratoriumen.*

LEINTZ GATZAGA Bisita gidatua Gatz Museoa

12:00etan euskaraz eta 13:00etan gazteleraz. Izena: 943-71 47 92 edo reservas@gatzmuseoa.com. *Gatz Museoa.*

OÑATI Haize Arroza taldea

Berrizko eta Abadiñoiko musikariak osatzen duten boskotearen emanaldia. Sarrerak, sei euro. *Gaztelekuan, 12:30ean.*

ASTELEHENA 8**ARRASATE 'Desmitificando el invierno demográfico' hitzaldia**

EHUko geografia irakasle Itziar Aguadok egingo du berba Agenda 21 oinarri hartuta, Goienagusik gonbidatuta. *Kulturaten, 10:00etan.*

DEBAGOIENA Pentsiodunen elkarretaratzeak

Antzuolan, Bergaran eta Oñatin egingo dituzte. *Herri horietan, 12:00etan.*

Badator...



Algaraka

BAKARRIZKETA LEHIAKETA

Euskal Herriko lehenengo
bakarrizketa lehiaketa!

1.000 euroko
saria irabazlearendako!

Izena emateko **epea zabalik apirilaren 19ra arte.**

Bidali zure bakarrizketa baten 2-3 minutuko bideoa komunikazioa@algaraka.eus
helbidera edo egin izen ematea algaraka.eus web gunean.



Informazio gehiago:
algaraka.eus

ANTOLATZAILEAK



BABESLEAK



LAGUNTZAILEAK



SAIOEN EKOIZPENA

